

# KAIKO

URRETXUKO UDAL ALDIZKARIA

◀ **Udaberria  
erleak dantzan**

◀ **Gure airearen  
kalitatea**

◀ **elkarrizketa  
Jose Luis Padrón**



95. ALEA  
2008ko maiatza



Ale honetako laguntzaileak:

JESUS MARI ALBERDI  
FCO. JAVIER AGUADO  
KOLDO ARGANDOÑA  
GORKA AZKARATE  
PEDRO BERRIOTXOA  
IRENE CALVILLO  
MIREN CASTILLO  
JON CASTRILLO  
ANA ISABEL ITURBE  
IDOIA NARBAIZA  
JABIER OTERMIN  
MAITE QUEVEDO  
KISKITZA UGARTEBURU  
M<sup>a</sup> CARMEN VIEDMA

Azaleko argazkia:  
ELIAS OTEGI

Kaixoko argazkilaria:  
LUIS ANGEL TELLEZ

Barruko argazkiak:  
ZUHAITZAREN SOINUA  
"BERE"  
FCO. JAVIER AGUADO  
KAIXOKO LAGUNTZAILEAK

Lege Gordailua:  
SS/678/93

Konposaketa:  
ERROTAPRINT

Inprimaketa:  
Iparragirre, S.A.

Kopurua:  
3.300 Ale

KAIXOK ez du bere gain hartzen derrigorrez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas*

Ez bazara Urretxun bizi eta **KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu**, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net) helbide elektronikoan.

---  
*Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net)*

# aURKIBIDEA **KAIXO**

95. alea - 2008ko maiatza



**3** TRAFIKOA MARTXAN



**9** AURTENGOA TXALAPARTA URTEA



**12** UDABERRIA ERLEAK DANTZAN

KALEKO IRITZIAK **15**

**16** AIREAREN KALITATEA

ELKARRIZKETA:  
JOSE LUIS PADRON **18**



HERRI KIROLAK **6**



**23** LABURRAK

**26** AISIALDIRAKO BEGIRALE IKASTAROA

LAS FIESTAS REPUBLICANAS **28**

**30** UDAL ZERBITZUAK

TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAREN ERABAKIAK **32**

**34** KAIXO TXIKI



# TRAFIKOA PLANA MARTXAN

*Pasa den hilabetean jarri du martxan Urretxuko udalak hiriguneko trafiko arazoak konpontzeko helburua duen plana. Lehen urratsak Iparragirre eta Barrenkale kaleetan eragin ditu aldaketak. Orain, Iparragirre kaleak norabide bakarra du autoentzat, Legazpi aldera. Azkoitira doazen autoek berriz, Barrenkaletik pasa beharra dute. "Urretxu bizitzeko leku erosoagoa izan dadin" hartutako aldaketak dira eta Iñaki Zabala alkatearen esanetan "normaltasun osoz eta arazo handirik gabe" egin dira.*

**E**rabaki hauek aurrera eraman ahal izateko hainbat neurri hartu dira Barrenkalen. Aurrerantzean, aparkalekuak ilarakoak izango dira eta ez zeharkakoak. Bestalde, Iparragirre kalean autoak baterian eta zig-zag moduko bat egin ez aparkatzea aurreikusten zuen planak, baina ez da egin. "Probak egin ditugu autobusekin eta deserosoa izateaz gain arriskutsua ere iruditu zaigu". Helburua Iparragirre kalean autoen abiadura moteltzea eta oinezkoen segurtasuna bermatzea denez, aparkalekuak ezkerrean kokatuko dira eta oinezkoen pasoa altxatu egingo da. Espaloi bat egingo da atari bikoitien aldean.

Barrenkaleko aldaketek aparkalekuak gutxitu ditu baina Iparragirren 8-10 auto uzteko lekua egingo da. Eta, Elizaldeko lursailean, Larreaga base-rrira doan bidean, 15 bat autoentzako aparkalekua egingo da.

## Lehentasuna oinezkoiei



Planaren onuradun nagusiak oinezkoak dira eta hauek hobekuntza nabaritu dutela dio udalak. "Erosotasunean irabaziko dugu, dudarik gabe. Auto gidariek ulertu behar dute Iparragirre kalean ez daudela beren terrenoan eta oinezkoek dutela lehentasuna." Izan ere, Iparragirre kalea estua izateak eta gaizki aparkatzeko ohitura txarrak ez die oinezkoiei, eta zer esanik ez bertan bizi direnei, pasoa erraztu.

Trafiko plana Zumarragako udalarekin elkarlanean egin da eta Leber enpresa bizkaitarrak diseinatu du. Honen harira, trafikoari dagokionez Urretxu eta Zumarragako batera aritu behar dutela azpimarratzen du Iñaki Zabala alkateak: "Mugikortasunaren arloan bi udalek batera hartu behar dituzte erabakiak. Urteak eman dira kontrakoa egiten eta horrek ez gaitu inora eraman".



Urretxuko udala burutzen ari den aldaketak, soilik bere kaleei eragiten dizkietenak dira. Ondorengo urratsa Ipeñarrieta kalea izango da, geltokietako sartu-irteera. Hau Zumarragako udalarekin batera egin behar dutenez, Zelai Ariztik lanak guztiz bukatzea itxarongo dute lanean jartzeko.>

**Maite Quevedo**

	CAMBIO	CONSECUENCIA	SOLUCIÓN
 <b>DIRECCIÓN AZKOITIA</b>	Antes había que ir por la calle Iparragirre y ahora por Barrenkale.	En Barrenkale, en vez de aparcar en batería, hay que hacerlo en línea. También desaparecen las plazas en línea junto a las viviendas.	Para compensar la pérdida de plazas de aparcamiento, se crearán unas 8-10 en la calle Iparragirre y otras 15 en Elizalde.
 <b>DIRECCIÓN LEGAZPIA</b>	Se sigue pasando por la calle Iparragirre, pero pasa a ser dirección única.	Se dejará de aparcar en línea para hacerlo en batería; en el lado izquierdo. Se delimitará un espacio para peatones en el costado parís.	Se solucionará el problema de los peatones debido a la estrechez de la calle Iparragirre.



# Nuevos horarios y actividades en el Polideportivo Aldiri

*Desde mediados de este mes de abril los usuarios del Polideportivo Aldiri habrán notado algunos cambios en el mismo, que desde KAIXO queremos dar a conocer. Para ello nos hemos puesto en contacto con el técnico municipal de deportes Miguel Ángel Cristóbal para saber en qué consisten.*

**P**or una parte y coincidiendo con la adjudicación del servicio de limpieza a la empresa, Goiber, se pensó en ampliar el horario de las actividades y servicios que presta el polideportivo, ya que se había visto que podía haber una cierta demanda por parte de las personas que hacían deporte por las mañanas, a las que el horario de apertura les podía resultar interesante.

Por otra parte y aprovechando que la sala de fitness / musculación no se había renovado desde su puesta en marcha, hace aproximadamente unos siete años, y que recientemente se han renovado 6 de las máquinas existentes, como bicicletas, cintas de andar y elíptica se le ha querido dar también un nuevo aire a esta sala que utilizan alrededor de unas 100 personas, con la presencia de un monitor en ciertas horas para asesorar a los usuarios.

En concreto, la información que nos transmite Miguel Cristóbal es la siguiente:

**Nuevo Horario LUNES - VIERNES:**  
**7:30 a 22:00 horas**  
(actualmente de 9 a 21.30)

## **SALA MUSCULACION / FITNESS:**

Para esta actividad se propone que un monitor preste servicios de asesoramiento en sala, preparando planes personalizados a los clientes. En un principio a modo de prueba se propone su presencia 4 horas a la semana

en un posible horario que pudiera ser martes - jueves: 10:00 - 11:00 mañana y lunes - miércoles: 19:30 - 20:30 tarde.

Según la demanda de la propuesta se podría ampliar el horario. A la vez se programarían varios cursos de iniciación al fitness / musculación coincidiendo con las horas de presencia del monitor, estos cursos serían gratuitos y su finalidad además de ampliar la oferta horaria y de servicio sería atender a los clientes de forma más personalizada y controlando mejor las prácticas en este espacio.

## **CICLOINDOOR:**

Nuevo cursillo de 8:00 a 9:00 de la mañana los martes y jueves (inicio Mayo).

## **PILATES:**

Nuevo curso lunes y miércoles de 8:00 a 9:00 de la mañana (inicio Mayo).

## **SAUNA Y BAÑO DE VAPOR:**

**Alquileres diversos en horas libres:** fútbol sala, baloncesto y tenis (también fines de semana en horas libres).





**Horario SÁBADOS:**  
**9:00 a 14:00** por la mañana  
**16:00 a 20:00** por la tarde


**Horario DOMINGOS:**  
**9:00 a 14:00** por la mañana

También nos comenta el técnico de deportes que se está preparando una encuesta para conocer las impresiones de los usuarios y establecer las posibles mejoras.

Por último le preguntamos si en el Polideportivo Aldiri no existe la figura del abonado como en los polideportivos de Zumarraga y Legazpi y nos contesta que no, que de momento, solo existe la figura de usuario que utiliza el polideportivo en el momento que lo necesita, abonando el precio del curso al que se apunta. Pero se quiere implantar en breve un carnet de acceso al polideportivo y se va a estudiar la posibilidad de unir el servicio de la piscina exterior al del polideportivo.

Para más información sobre cursos, horarios y precios pueden dirigirse al Polideportivo donde les darán gustosamente toda la información que necesiten.>

*M.<sup>a</sup> Carmen Viedma*



## ordutegi eta aktibitate berriak al dirri kirol degian

Apirilaren erdi aldetik aurrera, Aldiri kiroldegiko erabiltzaileek aldaketa batzuk antzemango zituzten bertan; KAIXO honen bidez emango dizuegu horien berri. Horretarako, Miguel Cristobal Udaleko kirol teknikaria-ekin jarri gara harremanetan, eta berak zehaztu digu guztia.

**Ordutegi berria:**  
**ASTELEHENA-OSTIRALA:**  
**7:30 - 22:00**  
*(orain arte 9:00 - 21:30)*

**MUSKULAZIO GELA / FITNESS:**  
 Jarduera horretarako, gelan bertan aholkulari lanak egingo dituen begirale bat jartzea proposatu da, bezeroei plan pertsonalizatuak prestatzeko. Hasiera batean, proba gisa, astean lau ordu egotea proposatu da; ordutegia haxe izan liteke: asteartea - osteguna: 10:00-11:00 eta aste-

lehena - asteazkena: 19:30-20:30.

Eskabidearen arabera, zabaldu egin liteke ordutegia. Era berean, fitness / muskulazioan hasteko ikastaroak antolatuko lirateke, begiralea bertan dagoen orduetan; ikastaro horiek dohainik izango lirateke; ordutegia eta zerbitzua haunditzeaz gain, bezeroei arreta pertsonalizatua eskaintzea eta gune honetako praktikak hobeto kontrolatzea izango litzateke helburua.

**INDOOR BIZIKLETA:**

Ikastaro berria, goizeko 8:00etatik 9:00etara, astearte eta ostegunetan (hasiera maiatzean).

**PILATES:**

Ikastaro berria astelehen eta asteazkenetan, goizeko 8:00etatik 9:00etara (hasiera maiatzean).

**SAUNA ETA LURRIN BAINUA:**

**Hainbat alokairu ordu libretan:** areto barruko futbola, saskibaloia eta tenisa (baita asteburuan ere, ordu libretan).

**LARUNBATETAKO ordutegia:**

goizez, **9:00 - 14:00**  
 arratsaldez: **16:00 - 20:00**

**IGANDEETAKO ordutegia:**

goizez, **9:00 - 14:00**

Bestalde, kirol teknikariak aipatu digunez, galdeketa bat prestatzen ari dira erabiltzaileen iritzia ezagutzeko eta egin litezkeen hobekuntzak zehazteko.

Ikastaro, ordutegi eta prezioei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, kiroldegira bertara jo dezakete interesatuek, eta bertan eskuratuko zaie behar den guztia.





# herri el kirol elkartea

***Herri kirolekiko zaletasuna berebiziko loraldia ari da bizitzen azken boladan gurean; iazko udazkenean joko zuen goia, ziurrenik, herri kirol jardunak gure bi herriotan, Zumarraga eta Urretxuren arteko gizon proba apustuak jokatzearekin batera (bigarren ekinaldian Ezkio Itsasoko taldeak ere hartu zuen parte). Honetaz guztiaz eta herri kirolek herriotan egun bizi duten egoeraz mintzatu asmoz, Urretxu-Zumarragako herri kirol elkarteko kideekin bildu gara.***

**U**rretxu-Zumarragako herri kirol elkartea 80. hamar-kada amaiera aldera sortu zen, garai hartan herriotan zegoen sokatiraren inguruko mugimendu indartsuak hauspoturik, neurri batean. Hasera hartan, bazkietza zabala lortu eta jende mordoxka bildu zen taldearen baitara. Izan ere, sokatira talde indartsua osatu zen Zumarraga-Urretxun, Euskal Herri mailan puntan ibili zena. Gizonezkoena ez ezik, emakumezkoen taldea ere osatu zen, eta hau ere maila oso onean aritu zen zenbait urtez.

Urte batzuk geroago, ordea, sokatira taldeak indarra galtzearekin batera, elkartea murriztu eta ondorengo urteetako euren ildo nagusia finkatu zuen; horrela, Zumarraga eta Urretxuko jai eta ospakizun ezberdinetan herri kirol ekitaldiak antola-

tzeko ardura dago gaur egun herri kirol elkartearen esku.

Herri kirol elkartearen muina bospasei lagunek osatzen dute (argazkian ageri diren Xabier Zaldúa, Josu Aiastui, Inixio Izagirre, Anjel Errazu eta Ino Ugarteburu, besteak beste); ekitaldi garrantzitsurik denean, ala-

baina, jende gehiagoren laguntza ere izan ohi dute. Zumarragako Zelai Arizti kultur etxe berrian finkatu du orain gutxi bere egoitza elkarteak.

Ondorengoak lirateke, herri kirol elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldi ofizialak: Antioko pazko asteleheneko jaialdia, San

## **Emakumezkoak noiz?**

Ohikoa bilakatu da gaur egun herri kirol erakustaldietan emakumezkoak lanean ikustea. Gurean, ordea, badirudi momentuz emakumezkoek ez dutela plazara irteteko urratsa emateko asmo handirik. Elkartekoen esanetan, alor ezberdinetan maila politetan aritzeko moduko emakumezko bat baino gehiago

dago herriotan, eta erraz osatuko litzateke gizon proba ordeztu emakume proba deitu beharreko lehian aritzeko taldea. Ea bada, gutxi barru herriotako emakumezkoak ere, beste kirol gehienetan egiten ari diren moduan, herri kirolen munduan euren bidea egiten hasten diren.



## Gizon probaren oihartzuna

Gizon probak oihartzun handia izan zuen iaz; egunkari, telebista eta hedabide dextentek egin zuen ekimenaren jarraipena eta horrek kate luzea ekarri die herri kirol elkarteko-  
ei. Horrela, ETBko Bi erepidean saiorako erakustaldi moduko bat grabatu berri dute, Sukarrietako talde baten aurka lehiari arituko

balira bezala. Horrez gain, Localia telebista kateko beste saio batean parte hartzeko gonbita ere azterzen ari dira uneotan, baina kasu honetan atal kulturala ere landu behar da eta horretan herren xamar daudela diote, barrez. Galdera korapilotsuenak erantzungo dituen norbait aurkitu behar!



Xabier Zaldua, Josu Aiausti, Inixio Izagirre, Anjel Errazu eta Ino Ugarteburu Herri Kirol elkarteko kideak.

Juanetan Santa Barbaran egin ohi den herri kirol erakustaldia, Santa Isabel, Santa Anastasi eta Santa Lutzi eguneko goizeko herri kirol erakustaldia. Zumarragako Busca Isusi buzkantza lehiaketaren antolaketan ere lagundu izan du elkarteak azkenaldian.

Santa Lutzi eguna da, zalantzarik gabe, egun garrantzitsuena elkarre-  
rentzat, goizeko herri kirol erakustaldiari idi probek ematen baitiote jarraipena arratsaldean. Egundain honetan, gainera, herriotako idi proba lehiaketako finala jokatu ohi dute hiru pare onenek, Santa Isabel eta Santa Anastasi jaietan beste hainbat pareren aurka kanporaketak jokatu ostean.

## Gizon proba, izako izarra

Iazko urte amaiera aldera, Urretxu eta Zumarragaren arteko gizon proba apustua izan genuen ikusgai Zumarragako plazako probalekuan. Herri kirol elkarteko Xabier Zaldua eta Toribio Kerejeta izan ziren, hein handi batean, ekimenaren sustatzaileak, orain zenbait hamarkada egindako saio haren antzekoa errepikatzea ahalbidetu dutenak (Kerejeta bera gizon proban aritu zen orduan).

Bi gizon proba saio egin ziren iaz; Urretxu eta Zumarragaren arteko apustua, lehena, eta, Ezkio Itsasoko taldearekin batera, erakustaldi modukoa, bigarrena. Sekulako ikusmina sorrarazi zuten ekinaldiok lehia aurreko egunetan, eta jendetza bildu zen bi egunetan Zumarragako probalekuaren ertzetara. Aurten ere, badu herri kirol elkarteak gizon probari segida emateko asmorik, Legazpiko taldeari ere plazaratzeko aukera

emanaz, agian. Edozein kasutan, saio gehiegi egiteak gizon probaren arraldia baretu eta ikusmina zein ikuslegoa murriztuko duen errezeloa ere badute elkartekideek, eta ez dirudi herriotako jaietan agerraldi bana egingo dutenik, zenbaitek proposatu bezala. Urtearen hondarrerarte itxaron beharko dugu zaleok, ziurrenik, ikuskizunaz gozatzeko aukera berri bat heldu artean.

## Koadrilen arteko jokoak: herri kirol eskola

Herri kiroletako federazioaren asmoetako bat herri kirol eskolak sustatzea da; hots, eskola umeek futbollean, saskibaloian zein pilotan aritzeko azpiegitura duten modu bereztuan izatea, herri kiroletan aritzeko ere. 90. hamarkada hasera aldera egin zuen gure herriotako elkarteak honen moduko saiakera bat, aizkorak eta bestelako materiala erosi eta entrenatzeko lokaltxo bat egokituz, baina ekimenak ez zuen, tamalez, jarraipenik izan. Izan ere, ez da erraza, herri kirolek eskatzen duten disziplina maila gaztetxoaren artean hedatzea, gaztetxoek berezko gogo eta ilusio hori, etxetik datorkien zaletasuna, alegia, izan ezean.

Herriko koadrilen arteko herri kirol jokoak ere, loraldia bizi dute egun; herriko jaietako koadrila egunegiteaz gain, urteko beste sasoietan ere egin izan dira azkenaldian joko edo apustu hauek. Herri kirol elkarteko laguntzaz, maila polita lortu dute joko hauetan parte hartzen duten gazte askok eta litekeena da hauetako batzuk txapelketa garrantzitsuagoetan parte hartzea ere. Elkarteko esanetan, koadrilen arteko joko hauek dira, bestelako eskolarik ezean, gazteenengan herri kirolekiko zaletasuna hedatzeko tres-



na. Zaletasunik ez duena nekez egongo baita, hiru hilabetetan zehar, astean hiruzpalau aldiz gogor entrenatzen.

## Herri kirolen egoera herriotan

Inguruko herrieekin alderatuz, herri kirōen egoera ez da txarra gure herriotan, eta hori, neurri handi batean, herri kirol elkarteari zor zaio. Gazteen artean herri kirolak modan daudela esatea ere ez da, again, gehiegikeria. Zumarraga-Urretxu-Legazpin 80 idi (40 idi pare) inguru egotea, horren adibide. Bestalde, maila politean jarduteko gai den kirolari bat baino gehiago ere bada (Xabier Zaldúa, errekorren bat edo beste egindakoa, Julen Aranberri gaztea, aizkolari handia izateko bidean dena), eta, garrantzitsuagoa dena: jendearen parte-hartzea bultzatu da. Bestela esanda, herri kirolen inguruko kultura berezi hori hedatzea lortu da, eta zaletasuna sustatzea. Normala da, gaur egun, Aiara edo beste norabait idi probak ikustera joan eta horretara propio joandako hemengo gazte koadrilekin elkartzea. Eta hori, pozgarria da oso.>

**Gorka Azkarate**

## Pisaketan komeriak

Sokatirarako egin ohi den moduan, gizon proban lehiatuko diren taldeek gaititu ezin duten pisu muga bat izan ohi dute, eta zenbait talderi kosta egiten zaio mugaz azpitik ibiltzea. Iaz, esaterako, pisaketa aurreko egunetan ia jan gabe egon zenik bada, eta baita pisaketa baino lehen korrikaldi latzak egindakorik ere. Pisaketa aurretik jan gabe egon eta pisaketa ostean sekulako betekada egitea ezin da, edozein kasutan, oso osasuntsua izan.

Pisuan sartzeak dauka, ordea, lehentasuna...



## Grupo de herri kirolak

En los últimos años, estamos viviendo un auge importante del deporte rural en nuestro entorno; la asociación Urretxu-Zumarragako herri kirol elkarte tiene gran parte de culpa de ello. Esta asociación trabaja de manera incansable en organizar eventos que fomenten la afición por el deporte rural. Pruebas de arrastre

de piedra entre parejas de bueyes, apuestas de deporte rural entre cuadrillas del municipio, exhibiciones de deporte rural en fechas festivas... El año pasado, por otro lado, la asociación organizó dos pruebas de arrastre de piedra entre cuadrillas de jóvenes de ambos pueblos, que levantaron gran expectación.



▲  
Apirileko koadrilen arteko jokoetako trontza saioko bi irudi





# aurten goa txalaparta urtea

*Zuhaitzaren Soinua Kolektiboak aurten 4. txalaparta eguna ospatuko duela eta, ekitaldi ugariaren antolaketa lanetan dihardu. Urretxuko Pagoeta antzokian duten egoitzan bildurik topatu ditugu zenbait taldekide eta elkarteaz gain, beraien egitasmoen berri eman digute.*



**Z**uhaitzaren soinua 1992an sortu zen, dozena erdi bat lagun Joxe Manuel Bereziartuaren, "Bere"-ren pintura lokalean txalaparta jotzen hasi zirenean. Lehen ikastaroa 1995ean eskaini zuten, txalapartaren oihartzuna herrian zabalduz. Ikasle berri hauekin hasiera

gehienbat baina 40 urtetik gorakoak ere" adierazi digute. Beraien filosofia da herri mailan bolondres bezala aritzea, ikastaroak ez dituzte kobratzen. Udalen laguntza dute baita lokala ere, Urretxuko Pagoeta antzokian.

tuko da jaia, txosna eta guzti.

Uda ondoren eta Santa Anastasia jaiak baino lehen, txalaparta eguna izango da, irailaren 13an, hain zuzen. Aurreko edizioan bezala, Euskal Herriko herri guztietako txalapartariak parte



batean taldea zena Zuhaitzaren Soinu Kolektiboan (ZSK) bihurtu zen. Urte guzti hauetan zehar antolatu dituzten ikastaroen bitartez, taldean jarraitzea erabaki duten pertsonak joan dira elkartearen osatzen.

2008a, aurtengoa oso urte berezia izango da ZSKrentzat, 4.txalaparta eguna ospatuko baitute. Ondoren aipatuko ditugun ekitaldi guztiak kontutan izanda, hobe "txalaparta urtea" deitzea. Beraz, txalapartaren soinua ez da egun batean bakarrik entzungo, urte osoan zehar antolatzen ari dituzten ekitaldi sakabanatuagoetan ere izango dugu musika soinu honekin gozatzeko aukerarik.

Momentu honetan ikastaroa doan eskaintzen ari dira, ekainaren 21erarte iraungo duena. Guztira 32 bat lagunek eman dute izena eta elkarteko arduradunak pozik daude izandako arrakastarekin. "Jende gaztea animatu da

Ikastaro honez gain, beste ekimen interesgarri eta original bat antolatzea pentsatu dute. Urretxu eta Zumarragako ikastetxeetako 3. DBHko ikasleei ordubetez beraien elkartearen aurkeztu eta txalapartari buruzko azalpena emango diete. Ikasleek musika tresna honekin lehen kontaktua izateko aukera izango dute. Ondoren, ikasleek binakako taldeetan, txalapartan aritzen den bezala, bertsoa, idatzia, marrazkia edo bururatzen zaiena sortuko dute.

"Ikastetxeetan proposamena aurkeztu eta harrera ona izan du" dio Ibon Garmendia taldekideak. Bestalde, ikasleek egindako lanak ikusgai ipiniko dituzte irailaren 7an inauguratuko den erakusketa batean.

Ttakun ttakunak ere entzun ahal izango dira Zuhaitzaren Soinu Kolektiboak ekainaren 20rako afaria eta Orexa TX-en kontzertua prestatu baitu. Antioko elizaren atzekaldeko zelaian ospa-

hartuko dute. "Herriko jende, elkarte eta taldeak asko inplikatzen saiatuko gara" diote ZSKko taldekideak. Eta guzti hau gutxi balitz, irailerako antolatu nahi duten hitzaldiaren prestaketa lanean ari dira.

Urteari amaiera egokia emateko eta indarrez jarraitzen badute, beraien asmoa da beste ekitaldiaren bat prestatzea ere.

Aurten antolatuko dituzten ekimenak alde batera utzi eta beste abeslari edo soinu-joleekin izandako esperientziei buruz arituko gara ondoren. Rogelio Botanzekin eta Bakarne Jorgerekin diskak grabatu zituzten. "Esperientzia oso interesgarriak izan ziren, aberasgarriak. Beraiek izan ziren gurekin harremanetan ipini zirenak" adierazi digute. Beraien ustez, ordea, curriculum hori izatea ez da garrantzitsuena, zaletasunagatik jendearekin biltzea baizik. Hori da beraien helburua, herritarren artean txalaparta bultzatzea. "Gipuzkoan



bikote asko daude txalaparta jotzen dutenak, baina horrela taldeak, Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa bezalakoak, gutxi. Urretxu-Zumarragak badu presentzia txalapartaren munduan, erreferentea da.

ko batzuk horrek beraien urteetako kutsu hori galtzea ez ote dakarren zalantza dute. "Txalapartak oso momentu onak eman dizkigu eta gustura aritzen gara".

Kaixoko lerro hauen bitartez herri-tarrak gonbidatu nahi dituzte, elkarte irekia delako eta asmo potoloak dituztela adierazi nahi dute. Ziur baietz!.>

**Kizkitza Ugarteburu**



Bakarre Jorgerekin Frantzian eta Suitzan jotzeko aukera izan zuten. Euskal Herriatik kanpo, atzerrian, txalapartaren soinuak nolako harrera izaten duen galdetu diegunean honakoa erantzun digute: "Atzerrian eskainitako saioetan orokorrean harrera ona egin digute beti. Harritu egiten dira, lau oholekin soinua sortu dezakegula ikustean, ezezaguna bait da beraiantzat."

Zuhaitzaren Soinua Kolektibok ere teknologia berriekin harremanak izan ditu, txalaparta garai berrietara egokituz. Adibidez, flamenkoarekin, erritmo kutxekin eta soinu modernoarekin uztartu dute ttakun ttakun soinua. "Beldurrik ez dugu izan eta frogak egin ditugu. Egia esan gauza asko egin ditugu. Txalaparta alde batera uzteko arriskua ikusten diogu. Esperimentazioa egiten jardun dugu, gauza berriak egiteko asmoz.

Elkarte bezala oraintsu beraien estatutuak eratu dituzte eta talde-

## La txalaparta protagonista de este año

Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa celebrará el día de la txalaparta el 13 de septiembre. Tal y como han venido realizando en las ediciones anteriores reunirán en Urretxu a diversos txalapartaris de Euskal Herria. Sin embargo, éste no será el único acontecimiento que organicen, ya que han decidido realizar diversas actividades a lo largo de todo el año. En estos momentos están impartiendo un cursillo de txalaparta.

También han pensado en realizar una actividad muy interesante dirigida a alumnos de 3º de ESO, que consistirá en presentarles la asociación y explicarles que es la txalaparta, dándoles la oportunidad de que tengan un primer contacto con este instrumento musical. Los alumnos además podrán expresar lo percibido en el formato que ellos elijan: un verso, un escrito o dibujo, etc. Estos trabajos serán expuestos en una exposición.

ZSK organizará una fiesta especial en la Antigua para el día 20 de junio, donde se escuchará también el ttakun ttakun. La fiesta será a la noche, con cena, txosna y concierto de Orexa TX.

Para septiembre, además del txalaparta eguna, organizarán una conferencia. Y por si todo esto fuera poco, antes de finalizar el año nos pueden sorprender con alguna otra actividad, seguro que sí.



# udaberria: erleak dantzan

*Udaberria bertan dugu, eta eguraldi onak  
jendea etxetik ateratzera animatzen du.  
Oraingo honetan herritik osteratxo bat eginez  
museo bat ikusteko eta mokadu bat hartzeko parada  
izango dugu.*



## “Aikur abrió sus puertas como museo el 27 de septiembre de 2007”

Hainbat erlauntza mota, bertakoak zein kanpokoak, ikus daitezke. Erlauntzak dituen zatiak, eta antzeko informazio gehiago jasotzeko aukera dugu.

Baina sar gaitezen barrura. Aikurrek bi solairu ditu.

Behe-solairuan harrera dago, eta bertan produktuak daude salgai: ezti, ukenduak, propolia, kandelak, altzarienezko argizaria, eskutako krema, gozokiak eta abar.

Harreratik museora sartuko gara zuzenean. Bertan hiru eremu ezberdin daude: mitologia eta historia, erlezaintza eta polinizazioa eta produktuak. Eremu bakoitzean informazioa panel zein ukimenezko pantailen bidez ematen zaigu. Hainbat bitxikeriaren berri jasoko dugu horien bidez. Adibidez, usadio zaharra zen, etxe bateko nagusia hiltzen zenean etxeko erleei nagusiaren heriotzaren berri ematen zitzaizela. Beste ohitura zahar baten arabera, erleak ezin dira erosi edo saldu zorte txarra baitakar. Horrekin batera erlezaintzan erabiltzen diren tresnak eta Euskal Herrian aspaldi erabiltzen ziren erlauntza ereduak ikus ditzakegu. Tresnen artean ezin ditugu utzi aipatu gabe 1948. urtean Urretxuko Barca galdaragintzako Felipe Arbuluk, Andrés Aramendi eta Javiera Epelderen enkarguz egindako ezti-eraztutaila. Edo joandako mendean Zumarragako “Osinalde” gozogintza/ezkogintzan erabiltzen zuten turroi-prentsa, eta argizarioholean jartzeko argizarizko hariak egiteko tresna ere.

Erakusketa honetan ikasiko dugu ere kilo bat argizari sortzeko 8-10 kilo ezti behar direla.

Solairu horretan dago ere ezti ateratzeko planta modernoa. Baina erleek ezti ez ezik bestelakoak ere ematen dizkigute, hala nola propo-

lia, argizaria, erregina-jelea, polena, eztiardoa eta nektarra.

Bigarren solairura igoko gara, eta bertan erleen bizitza ezagutzeko aukera daukagu. Erleen morfologia argi ikusiko dugu bertan dagoen erle erraldoi baten irudiari esker. Ukimenezko pantailan honakoak ezagutu ahal izango ditugu: erleen barruko organoak eta guruinak; guk irudi bat nola ikusten dugun eta irudi hori bera erleek nola ikusten duten; komunikazio-dantza; erlekumaldia; erleak nola bizi diren erlauntzean eta nola egiten duten abaraska. Erleen hierarkia ezagutuko dugu, zeintzuk diren erreginak, langileak, erlamandoak eta horien eboluzio zikloa. Guri ematen dizkiguten produktuak ekoizteko eurak zer jaten duten, eta abar. Guzti horren ondoren, ikus-entzunezko gela eta tailerra ditugu zain.

Beraz, AIKUR museoan egin dezakegu eguneko lehen geldialdia. Museoa larunbat eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara dago irekita. Astebarruan antolatutako taldeentzat irekitzen dute ordua aurretik eskatuz gero.

Bisita bukatu ondoren, aldapan gora jarraituko dugu, Santa Barbarara iritsi arte. Bertako tabernarako hainbat asmo ere badauzka udalak. Orain taberna itxita dago, baina Udaleko arkitektoak erreforma proiektua egiten ari dira. Baldintza administratiboen eta teknikoaren ple-

## “Para producir un kilo de cera se necesitan entre 8-10 kilos de miel”

guak prestatu eta Udalbatzarrak onartu ondoren, konkurtsora atera dute. Oraingo honetan asmoa da kontzesioa hartzen duenak proiektuaren betearazpenaz arduratzea, hau da, inbertsioa bere gain hartzea. Horrela kontzesioa urte batzuetarako emango da, orain arteko sistema aldatuz. Gauzak era horretara eginez inplikazio handiagoa lortu nahi da. Erreformen artean aurreikusten da sukaldea goiko pisura igotzea, igogailua jartzeko, irisgarritasuna eta seguri-

**N**ahiko hedatuta dago urretxuarren artean Irimoko buelta. Egunero ikus dezakegu herritik atera eta maldan gora Santa Barbarara edo Irimora abiatzen den jendea. Baina horietako askok ez du jakin ere egingo, bidean museo bat ikusteko aukera duenik. Santa Krutz pasatu eta Santa Barbarara iritsi baino lehenago dagoen etxe zuri bat da AIKUR museoa. Erleen museoa, hain zuen ere. Erlategia aspaldi ireki bazuten ere (90eko hamarkadan), azken erreforma burutu ondoren 2007ko irailaren 27an ireki zituen ateak museo bezala. Iosune Epelde eta Elias Otegi erlezainak dira ekimenaren bultzatzaileak. Kanpoko aldean badute ibilaldi bat prestatuta erleen mundura hurbiltzeko eta hainbat zuhaitz eta sastraka motak ikusteko eta bereizten ikasteko: sahasak, laharak, akaziak, eukaliptoak, oteak, arteak, haritzak, gorostiak, besteak beste.





tatea hobetzea eta edozein ostalaritza-negoziori eskatzen zaizkion baldintzak betetzea. Obren adjudikazioa San Juan aldera egitea espero badute ere, egun horretan taberna irekita egongo da.

Oraindik gogotsu egonez gero, aurrera egiteko aukera dugu. Irimo magalean badago zer ikusi eta zer ikasi. Eta horretan laguntzeko Lekaio Kultur Elkartek proiektu bat aurkeztu du inguru horretan hainbat panel eta seinale jartzeko. Asmoa da ibilbide batzuk markatzea, eta distantzia eta toponimiaren berri ematea. Udala proiektu hori aztertzen ari da.

Beraz, udaberria bete betean dugularik, aukera ezin hobea da erleak bere lana burutzen ikusteko. Eta Santa Barbararaino iristen bagara, momentuz, ur tragoxka batekin konformatu beharko dugu. >

**Idoia Narbaiza**



“ Se van a realizar reformas en el bar de Santa Bárbara, y ha salido a concurso la concesión administrativa del mismo ”

## una parada camino a santa barbara

Muchos de los que pasean por Santa Bárbara o van a Irimo desconocerán que ahí justo después de Santa Krutz y antes de Santa Bárbara está el museo Aikur de las abejas. Aikur inició su andadura en los años 90, pero después de una remodelación abrió sus puertas como museo el 27 de septiembre de 2007. En el exterior del museo han preparado un paseo mediante el cual podemos acercarnos al mundo de las abejas. También podemos ver diferentes tipos de colmenas, tanto de aquí como de otros lugares. E iniciarnos en el aprendizaje de diferentes tipos de árboles y matorrales.

Vayamos al interior del museo. Este consta de dos plantas. En la planta



inferior está la recepción donde hay una pequeña tienda con productos elaborados por los apicultores losune Epelde y Elias Otegi promotores del museo. Desde aquí accedemos al museo. En esta planta encontramos 3 áreas diferentes: mitología e historia, apicultura y polinización y productos. En las tres la información se nos presenta por medio de paneles y pantallas táctiles interactivas. En esta planta entre otros muchos objetos encontramos dos que nos llaman la atención: un extractor de miel construido en 1948 en la calderería Barca de Urretxu por Felipe Arbulu, por encargo de Andrés Aramendi y Javiera Epelde; y una prensa de turrón que utilizaban a comienzos del siglo pasado en la confitería-cerería Osinalde de Zumarraga.

En la planta superior encontramos información referente a la vida de las abejas. Una abeja gigante nos explica la morfología de las abejas. Tenemos la oportunidad de conocer la jerarquía de las abejas, quienes son las reinas, las obreras, los zánganos y su ciclo de evolución. También podemos ver cómo vemos nosotros una imagen y cómo ven esa misma imagen las abejas. Un mundo lleno de curiosidades.

De aquí accedemos a la sala de audiovisuales y al taller.

El museo abre sus puertas los sábados y domingos de 11:00 a 14:00. Entre semana abren para grupos con cita previa.

Retomamos el camino y llegamos a Santa Bárbara. Los arquitectos del Ayuntamiento de Urretxu están redactando el proyecto de reforma del bar. El local necesita reformas para adecuarse a los requisitos exigibles a cualquier establecimiento de hostelería. Actualmente ha salido ya a concurso la concesión administrativa del bar.

Seguimos hacia arriba, Lekaio Kultur Elkartea ha presentado un proyecto para colocar diferentes paneles en el entorno de Santa Bárbara hacia Irimo, que ofrecerán la posibilidad de hacer diferentes rutas y dará referencia de la distancia y toponimia. El Ayuntamiento está estudiando este proyecto.

Uno de los paseos más habituales de los urretxuarras nos da la oportunidad de acercarnos y conocer el misterioso mundo de las abejas.

# kal eko iritziak

*Maite Quevedo, M.ª Carmen Viedma*



**LUIS ALBISUA**

Urretxuko eliza barrutik ikus dezaten esango nieke. Santa Barbara ere leku polita da, eta baita Ipeñarrieta jauregia ere. Mineralogia eta Aikur museoak ere hor daude; nik azken hau ez dut ezagutzen baina badut joateko intentzioa.

Nik turistak zuzenean Irimora bidaliko nituzke. Hori da niretzat Urretxuk duen lekurik ederrena. Ipeñarrietako Jauregia eta Iparragirre plaza ikusteko esango nieke ere bai. Leku asko dago ikusteko baina bertakook ez diegu garrantziarik ematen.

**JOSE MARI KEREJETA**



**CANDELA MENDEZ**

A mí me parece que lo que tiene Urretxu bonito es Santa Bárbara y los montes que lo rodean. Así que a los turistas les diría que subieran al monte. También me parece bonito el centro del pueblo, la plaza Iparragirre y las calles más antiguas.

## *Urretxuko zein leku gomendatuko zenieke bertara datozen turistei? ¿Qué sitio de Urretxu le recomendarías a los turistas?*

Ba, Santa Barbarara, Ipeñarrieta Jauregira, Iparragirre plaza eta inguetara... Nik ezagutzen ez dudana Aikur museoa da. Alaba izanda dago eta gustatu zitzaion; egunen batean joango naiz.

**M.ª JOSE LASA**



**TXEMA IRIBERI**

Yo les diría que vinieran por San Juan y que se dieran una vuelta por la zona de los bares para ver el ambiente del pueblo. Lo de más, podrían visitar el palacio de Ipeñarrieta también.

Les mandaría a que conocieran la casa de Iparragirre, la estatua... También hay dos museos que creo que están abiertos permanentemente. Para pasar un par de días ya hay sitios que visitar. .

**MIREN CABALLERO**





# zer arraio gertatzen da urretxu eta zumarragako airearen kalitatearekin?

**G**aldera soil honek, airearen kalitatea dela eta, hainbat urretxuar eta zumarragataren urteetako kezka azaltzen ditu. Betidanik gure herrietan ke eta usai ugarien ondorioak sentitu eta sufritu behar izan ditugu.

Neurketa azkarrak eta fidagarriak ezagutzeko aukera daukagun une honetan horrelako datuak azaltzen badira, zer izango ote zen orain dela urte batzuk? Zenbat gaixo? Eta hildako? "Gizon osasuntsua zen eta berehala joan da." Zenbatetan esan dugu?

Aspaldi honetan ahoz aho dabilen zurrumurrua da, eta ospitaleko medikuen artean zurrumuru bat baino gehiago, gure herrietan hainbat gaixotasunen igoera nabari dela, besteak beste neumonia eta bihotzeko gaitzak, semenaren kalitate baxua, abortu naturalen igoera, kantzerra, ... Gaixotasun hauek gure herriko kutsaduraren ondorio direla ezin da ziurtatu, baino eragina izan dezakeela diote Eusko Jaurlaritzako datu eta txostenek.

Badaude baita ere ondorioak sufritzen aritu zirenak, eta bere seme-alaben osasunaz kezkatuta, asoziazio moduan elkartu zirenak egoera horri aurre egiteko asmoz eta, inongo laguntza eta elkartasunik gabe, azkenean dena bertan behera utzi behar izan zutenak.

## **Airearen kalitatea. Bizitzarako behar dugun airearen garbitasun neurria**

Aspaldi honetan asko entzuten den PM10a da, beste batzuen artean, airearen garbitasun horretan eragina zuzena daukana. 10 µg baino gutxiago neurtzen duten partikula solidoak dira.

Partikula hauek bronkioetatik barneratzen dira gorputzetan.

## **Datu laburrak**

Badaude aurretik egindako beste bi ikerketa, baina ezagutzen dudan lehen-dabiziko ikerketa serioa 2000 urtean, ekaina eta azaroa bitartean, egindakoa da. Zumarragako futbol zelai inguruan kokatuta egon zen neurgailu mugikor bat erabili zen horretarako.

Partikulen kontzentrazio handiak eta ospitaleetara egiten ziren bisiten arteko erlazioa azaltzen zuen ikerketa honek eta, horrez gain, leku jakin batean sortzen zirela gehien bat partikula hauek, hau da, garai bateko Orbegozo, gaur egun Arcelor-Mittal den enpresan hain zuzen ere..

Orduan emandako datu txarrak ikusirik Gipuzkoako Osasun giroko Unitateak bigarren ikerketa bati ekin zion. Ikerketa hau 2003.urtean, martxoa eta urriaren bitarteko datuak jasoz, egin zen. Zumarragako Osasun Mentaleko Zentro inguruan kokatu zen orduan beharrezko neurketak egiteko kabina mugikorra.

Datuak, nahiz eta garai hartan arauak lasaiagoak eta exijentzi gutxiagokoak izan, kezkarriak izan ziren hala ere. Arauak ezartzen zuen eguneko 60 µg/m<sup>3</sup> batez besteko muga eta hau 45 aldiz gaintutua izan zen. Hau da, 79 aldiz urtean (batez bestekoa eginaz), 35 izanik onartzen zuten kopurua. Beruna ere mugaz kanpo agertu zen.

Handik urte batetarako da hurrengo ikerketa, 2004ko martxotik uztaila bitartean egindakoa. Kasu honetan Arcelorrek Euskal Herriko Unibertsitateari eskatutako txostena da.

Emaitzak, PM10-eko neurketak konparatuz %20 hobeagoak izan ziren. Ordu arte eman ziren datu onenetakoak izan ziren baina, hala ere, arauak eskatzen zuten neurri minimotik oso urrun.

Eta 2007ra iritsi gara.. Urte honetako ekainetik aurrera Eusko Jaurlaritzak Zumarragako Izazpi auzoan jarrita daukan kabina finkotik, orduz-orduko datuak jaso ahal ditzakegu. Kabina hau Euskadi osoan zabaldua dagoen sare baten barruan dago. Araudia betez, datuak publikoak dira eta interneten bidez jarraitu ditzakegu jasotzen diren datuak, bi egunetik behin gutxi gorabehera agertzen direlarik.

Ekainean hasi ziren datuak ematen eta laster konturatu ginen oso txarrak zirela. "Noticias de Gipuzkoa" egunkariak azaltzen zuena baino askoz okerragoak. Bertan EJKo Ingurugiroko arduradun nagusiak, Aberasturi Jaunak,



Zumarraga-Urretxu abagune moduan Gipuzkoan dauden herri txarren artean sartzen zirela eta berehala aterako zirela aipatzen zuen. Erdizka esandako egia azkenean gezurra bihurtu da. Hemengo datuak, Euskadi osoko txarrenak bait ziren.

Gaur egun bete beharreko arauen arabera, PM10 neurketak eguneko batz bestekoa ezin du 50 µg/m<sup>3</sup> baino handiago izan eta urtean zehar ezin da 35 aldiz baino gehiagotan gertatu.

Datuak dienez ekainetik hasita 63 aldiz gainditu zen. Urte osoa kontuan hartuta 112 aldiz izango litzateke.

Araudiak ez du kontutan hartzen egunen zehar gertatzen dena. Denok dakigu Arcelor-Mittalek gauaz egiten duela bere produkzioa eta tarte horietan ematen dira datu txarrenak.

Baimenduta dagoen neurria lau aldiz gainditzen da, batz bestekoa une horietan batzuetan 8 eta 10 aldiz gainditzera iristen delarik.

### Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburuak Arcelor-Mittal-i ezarritako zigor espedientea

lazko datuak txarrak izan baziren, aurtengoak ez dira hobeagoak. Beldurgarriak.

Urtarrila eta Otsailean 26 aldiz gainditua. Urtean zehar, berriz, 143.

EJ-k honi guztiari aurre egiteko neurri moduan labeen erabilera murriztea eskatu zion Arcelorri eta honek, kasurik egin gabe, berdin jarraitu zuen.

2008ko otsailaren 18an ezarri zion EJak Arcelorri zigor espedientea. Bertan agertzen ziren Arcelorrek bete beharko dituen neurri bereziak.

### Hausnarketak

Hainbeste denbora pasa eta gero, non egon dira orain arte gure agintariak? Nola liteke horrelako harribitxia ondoan eduki eta inork ezer ez egitea? Arduragabekeria handiz jokatu dutela uste dut, bai Eusko Jaurlaritzako eta baita gertuko gure agintariak ere.

Zigor espedienteari buruz, berriz, ondo dagoela esango nuke eta arazoa konpontzeko bidean jarriko duela. Laster, gutxienez, Azpeitia aldean duten airearen kalitateko emaitzari inguratu-ko garelako espero dut.

### Aurrera begira

Haizearen norabidea eta indarra neurtuko dituen estazioa martxan da, baina behar- beharrezko datu hauek falta dira:

PM10 partikulen konposizioa aztertzea. Hau da, gutxienez zenbateko beruna daraman, historikoki datu txarrak egon direla jakin ondoren.

Orain arte neurtu ez diren PM2.5 partikula motak. Hauek, txikiagoak izanik, osasunarentzat askoz ere kaltegarriagoak dira.

Behingoz Osasun Sailari azterketa serio bat egitea eskatuko nioke datu txar hauek osasunean duten eragina jakiteko.>

**Xabier Barriola:**

Zumarragako Ingurugiroko batzordean hautetsi independentisten ordezkaria



## Expediente sancionador del Gobierno Vasco a Arcelor-MittAL

Debido a los malos datos de la calidad del aire que desde comienzos de año se están dando en Urretxu-Zumarraga, peores todavía que los obtenidos en el 2007, con fecha del 18 de febrero de 2008, el Gobierno Vasco ha abierto un expediente sancionador a la empresa Arcelor-Mittal, por haber hecho caso omiso a la petición del GV de reducción de horario de funcionamiento de los hornos de Acería.

### Medidas cautelares

1-. La conexión por parte de Arcelor-Mittal a la estación de la red de calidad de aire ubicada en Zumarraga a objeto de que puedan visualizar los datos generados por esta estación en el plazo de 10 días a partir de la notificación.

2-. Si en siete días consecutivos se dieran 2 superaciones del nivel 100 µg/m<sup>3</sup> de promedio diario, en el plazo de 12

horas a partir de las 00:00 horas del día siguiente a la segunda superación, deberá comunicar las medidas adoptadas o a realizar, incluidas reducciones de horario o paradas de hornos.

3-. Si en la estación de calidad del aire se supera el nivel de 150 µg/m<sup>3</sup> de promedio diario o superaciones de 250 µg/m<sup>3</sup> en tres ocasiones consecutivas entre las 8:00 y las 22:00, se debe de parar el actividad y presentar un plan de arranque y operación para los próximos días con el VB de Medioambiente.

### Observaciones

Aunque las medidas cautelares en su conjunto creemos acertadas, llama la atención el hecho de que si la producción de Arcelor se realiza principalmente por la noche, el GV en la medida cautelar tercera se refiera únicamente a la franja horaria central del día. Creemos ridícula la solución de dormir con las

ventanas cerradas plantada por el responsable de Medio ambiente en su visita a Zumarraga. No estaría demás tener en cuenta también la noche.

### A tener en cuenta Urgente

Análisis de las partículas de PM10 recogidas, para conocer su composición. Sobre todo la concentración de plomo, ya que según los estudios del 2000 y 2003, se han dado y por lo tanto no sería de extrañar que ahora también se dieran valores peligrosos.

Recogida y análisis de datos de partículas de PM2,5. De tamaño más pequeño y potencialmente más peligrosas para la salud.

Solicitar al departamento de Salud, la realización de un estudio sobre la repercusión que estas emisiones tienen sobre la población de la zona.



## nortasun agiria

Izen-abizenak:

José Luis  
Padrón Plazaola

Adina:

38 urte

Olerkaria, idazlea  
eta itzultzailea

# JOSE LUIS PADRON,

“ *Gizarte faltsu eta alferrikako batean  
bizi garela konbentzitua nago* ”

*Si, para muchos de nosotros, expresar en un momento determinado las propias sensaciones personales puede ser, cuando menos, una tarea difícil, hacerlo sólo con las palabras como única herramienta y además, con la intención de provocar en el lector la complicidad que supone compartir un mismo modo de ver la vida, eso, eso sólo lo puede hacer un poeta. En KAIXO tenemos la suerte de contar, desde hace mucho tiempo, con la colaboración inestimable de José Luis Padrón, a quien hemos recurrido esta vez, para que nos muestre cómo ve él la poesía en la sociedad actual y su función en el mundo de la comunicación.*

**Kaixo.- Norbaitek zure argazkia ikusi edota zure izena irakurri ondoren "eta nor da tipo hau?" galdetuko balu, zer erantzungo zenioke?**

**Urretxun hazita baina Legazpin jaioa, ez al da hala?**

Bai, aitortuko dut, hirurak daukat nik, legazpiarron burdin indar hautsi ezina, zumarragarren eder-

bizi naizelako, gustura nagoelako baizik, trenbideak ikusten baititut nik itsasoaren uhinetan, eta zelaira suabe loturik dauden industrialdeak arrantza-ontzien partez. Barrualde-



José Luis Padrón.- Misterio bat, hala iruditzen zaidala, baina gizon interesantea, anarkista erromantiko bat, sentimendu eta jokamolde nahasi eta kontraesankorrak dituena, bakarzale porrokatua, baina lagunartekoa, valleinclanescoa, baina bitalista eta kartsua, markaz kanpoko ausarta, baina huskeriagatik beldurtzen den horietakoa, kontraren kontrakoa eta eskuzabala, inkonformista eta kritiko zorrotza, ispiluan bezain itsusia, baina harritzeraino seduktorea... Guztiok bezalako inor arrunt bat izateko esperantzan bizi den norbait dela erantzungo nioke.

tasun bortitza eta urretxuarron egur usain gozoa... Bo, herriarteko lehia eta broma ilun-argiak aparte, Urolako bailara hartzen duen eurien oso abertzalea sentitzen naiz ni, hemen baitago funtsean naizenaren geografia sentimentala, nire barne paisaiaren mintzaira sekretua. Orain, Zarautzen gustura nago ez Zarautzen

koak baitira nire keinuak eta begirada, barrualdekoak nire ibilera eta janzkera, barrualdekoak nire hegoak. Kostaldeari begiratzen diot jakinda barrualdean dagoela nire hodeiertz txiki eder liluragarria.

**Eskola garaian egindako idazlanetan nabarmena al zen jadanik, poesiarako zenuen trebezia?**

Trebezia edo irrika berezia. Eskola garaiko irakurketek eragin zidaten zirrarak denborarekin guztiz mamitu den idazteko zaletasuna piztu zidan, Lorca baten edota Verlaine baten edota

**“Hoy miro al mar consciente de que mis gestos y mirada son de interior, que es aquí, en nuestra comarca, donde se expande el horizonte de mi geografía sentimental”**



Gandiaga baten hitzak bihotzari nola itsasten zitzaizkidan sentitzeak. Eta lkastolako eta Lizeoko Agurtxo eta Begoña bezalako andereñoekin maitemindua nembilela ere bai, eta nire burua nabarmendu egin nahi nuela haien aurrean, sonetoak eta quintillak idazten. Hala ere, lagun on batek

esango lizuke "pelota nazkagari" bat besterik ez nintzela.

**Gaztaroan, beste koadrilakoen ondoan bentajarekin jokatuko zenuen nesketan ibiltzeko orduan, edo?**

Ai gaizoa ni! Zergatik diozun badakit, gaur hamazazpi urte Iñaki Bastarrika lagunak egin zidan elkarrizketari "Poema on bat idatzi nahiago dut, neskekin ibiltzea baino" erantzun niolako. Ezta?... Txepelkeri hutsa. Hobe nuen isilik egon, edo bestela, egia aitortu: bai bata, bai bestea, ahal izan banu biak egingo nituela oso gustura, eta batez ere, bigarrena, nesketan arrakastaz aritzea alegia, baina orduko erantzun horri igaritzen zaio nire maitale traktetsaren zorigaitza, nahia eta ezinaren zalantza doloretzua. Pentsatzen jarrita eta, beharbada horegatik hasi nintzan Bilintx bezala ni ere amodiozko penak kantatzen, neska politak beste batzuekin urruntzen baino ez nituelako ikusten. Eta asko, gehiegi idatzi nuen gazte denboran, hortik atera kontuak.

datozkit burura, argazkiko nire haur irribarrea ikusi eta mila hitz eskutara. Ulertzen dut merkatal hiztegi batetik sortutakoak direla adierazpen hain kategorikoak, saltzaile-bezeroen arteko hizkuntza pobretik. Irudi baten edota hitz baten ahalmenak baino gehiago, haren zintzotasunak kezkatzen nau. Pentsa, Markos Komandantearen hitzak irudi asko balio ditu niretzat, Aznarrena aldiz, zenbat? Bat bakarra, zaplasteko eder batena; gauza bera irudiekin, zenbat hitz balio dute Benettonen argazki kanpainek? Hiru asko jota, "kaka puska ederra".

**Hor nonbait entzuna dut, mundu honetan ez dagoela ezer irribarre batekin ezin daitekeenik esan, gauza bera aplikatu al diezaioke - gu olerkigintzari?**

Bai zera! San Balendin egunerako bezalako slogan baldarrak baino ez dira horiek. Egia da irribarre batek mundua mugitu dezakeela, baita poema batek ere, nola gertatzen den ikusi egin dut, baina gauza guztiek muga bat izaten dute, ez da beti-beti alaitzea izaten, maiz beste zerbait izaten da, franko txarragoa, eta orduan hortzak estutuz ere esan behar dira gauzak edo negarrez edo serio. Gauza behar dugu esan beharrekoa esan behar denean esateko, barrenarekin. Eta noizbehinka isilik egoten jakiteko gauza ere bai, nekez uler daitezkeenak entzuten baititugu maiz. Arrazoiketa eder gutxi, eta berriketa asko. Aho beltzeko irribarre gehiegi.

**“ Más que si mil palabras una imagen, ó si mil imágenes una palabra, a mí sólo me sirve lo que contengan de herida y honradez ”**

**Auneko Kaixon, atal honetan bertan, argazki-lari bat elkarrizketatu genuen, orain, ordea, olerkari bat; ados al zaude irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela esaten dutenarekin?**

Eta tximino batek mila sasi-politiko baino gehiago. Alferrikako eztabaidak dira horrelakoak, inozoen aritmetika goibela. "Irribarrea" hitza idatzi eta mila irudi

**Zure ustez Iparragirrek betetzen al du olerkariaren estereotipoa?**

Nik ez dakit zein den olerkariaren estereotipoa, poetak egon badaudelako mila eratakoak. Bai, jakina, Iparragirrearen sortze arnasak gogoratzen dizkidala egiazko olerkariaren sentitzeko modua eta askatasun grina. Gutxienez zait zurruteroa edota gonazalea ote zen; zenbat ezagutzen ditut nik halakoak izan, baina maitemintzeko talenturik ere ez dutenak. Haren bertsoetatik batzuk zoragarriak eta ikasbide handikoak iruditzen zaizkit. Gainera, askoz ere gustu



handiagoz begiratzen diot udal-plazan koblakari baten estatuari, asmo oneko edozein konkistatzaile batenari baino.

**Noiz arte ikusten duzu poesia, literaturak erdeinaturako seme-alaba "arraroa" izaten jarraituko duela?**

Literatura-katedradunen irabazpiderako argudio desitxuratuak baino ez dira hori bezalako guztiak, kulturako listoen fundamentu gabeko lezioak. Horrela pentsatzen dute poesiaz tutik ez dakitenek, literaturaz beti-beti baliagarritasun, salmenta eta arrakasta neurritan ari direnek. Sorkuntza bide guztiek goia jo dezakete gizakiaren bihotzean, eta maisu lan baten aurrean bihotza goitik behera dardarka hasten zaizunean, bost axola ipuina den, nobela den, koadro bat ala kanta bat den. Arnasa ordu diferenteetan hartua, hori da diferentzia bakarra.

**Zenbait lehiaketan epaile gisaritu zara; lana erraza dirudi, olerki bat zenbat eta ulertezinagoa orduan eta hobeagoa, diote batzuek.**

Astakeria da hori, galanta. Senarrak emaztea asko maite zuelako hil zuela pentsatzea bezala. Begira, jendeak arreta biziz eta batere kuestionatu gabe jarraitzen ditu Formula-1 bezalako ikuskizunak edota etengabeko tertulia politikoak, eta, oster, jende horrek berak ulermenaren atea gogotik ostiko jota danbateko batez ixten du poesia hitza entzuterakoan. Ez dut sekula konprenituko zergatik. Saia zaitez ulertzera! Ahalegindu! Burua eta ipurdia gero eta elkarren antza handiagoa hartzen hasi zaizkizula! Ideia terapeutiko gehiegi irensten dituzula, gehiegi! Hor da zorigaitza!

**Ba al dago olerkigintza herritarra goa bihurtzeko modurik?**

Egun, nork bere gogoko olerki liburua aurki dezake, aurkitu nahiko balu, ez trabarik ez buruhausterik sortuko ez diona, baizik eta nahikoa eta behar beharrezkoa duena. Ez



eboluzionatzeko aitzakia baino ez da hori, ume kejosoen ihesbidea. Kito. Zer egingo zenukete ezin herritarra go, ezin ulerterrazago idazten duten ehun poeten izenak emateko prest banengo? Segur naiz presaka zabil-

“ **Mi inspiración surge de saberme desesperadamente naciente y mortal a cada momento** ”

tzatela litzatekeela gehientxoeren erantzuna. Pedagogia behar da, bai, bokaziozko irakasleak ere bai eskoletan, baina, sinistazu, konbikzio falta eta axolagabekeria dira arazorik kezagarrienak.

**Zeure kasuan nondikan datorkizu inspirazio-izpia?**

Aski ditut jakin-mina eta kuriositatea, duda egin eta ikerketarako gogoia, sentimendu gosea eta ametsaren hango leihoak. Euria, bestearen minak eta polizia jubilatu taldeak sakabanatzen. Altxatu gabe dauden pertsianak, gau handiaren zoko bateko gau txikia, ipar haizearen hotzikarra, ibili eta ibili eta ezer ez aurkitzea-

ren nekadura. Aski dut uneoro bizi eta hiltzen naizela jakitea.

**Ezer gutxi ulertzen dugunontzat, badirudi olerkigintzan bi gai direla behin eta berriro jorratzen direnak: amodioa eta ezbeharra, egia al da hori?**

Jolasa eta dibertimendua izan da poesia, historia azaltzeko modua, larritasun minen jasotzailea; poz-kantua ere da, edo erlijio-estasia; gizakiaren amets eta nahimena sekretuen adierazlea, edota haren amorrutarena, haren protestarena. Kezka horiek guztiak eta beste gehiago izan daitezke poesiaren ondare, baina zoragarriena da gizakion lengoaiaren aldekoa izan dela hasieratik bertatik, harekin konprometitua, haren patuaz arduratua, haren etika, haren ideiak eraikitzen lagun beti. Poesia da, ezbairik gabe, gizakion bizitza berarekin elkartzen gaituen aitorten barne-barnekoena. Garrantzi gabeko denbora-pasa, debaldeko literaturariketa baino zerbait gehiago izatea helburu duen poesian, zauri bat bezain poesia benetakoan alegia, poesiak dardara egiten du gizakiaren irrika berberaz

**Kaixon laguntzaile hasiberriak**



**zinetela biok, Antziñe Agirre istripuz joateak sortarazi zigun ezbeharren samina, zure olerki baten bidez azaldu nahi izan genuen, gogoratzen al duzu?**

Ez dudik egin. Heriotza puta hori. Zitala izan zen, bai, eguna. Ibaiak ere itzali ziren. En fin. Ondoren, ahizpa ezagutu dugu, Garbiñe polita, baita adiskidetu ere, eta harekin ospatzen ditugu gaur Antziñeren xar-mantasun maitekorra eta ilargi begi ederrak.

**Zeuk esanda, garai batean nahia go omen zenuen gazteleraz idaztea euskaraz baino, zer dela eta? Zein hizkuntza iruditzen zaizu egokiena olerkigintzarako?**

Beharbada arrazoi fonetikoengatik izango zen, edo, agian, batzokiko edota herriko tabernako edota laborategiko euskalduna izan beharraz kokoteraino nengoelako, ez dakit, baina zehazki zergatik esan nuen ez dakit une honetan. Gauza da hizkuntza guztiak egokiak iruditzen zaizkidala, menperatzen dituzun horietan

**“ Vivimos una incomunicación dramática. Las palabras, en lugar de constituirse en puente entre los hombres, se han convertido en muro de separación ”**

arinkeriak baino beste zerbait idazteko badaukazu eta idaztekoa ongi idazten badakizu betiere. Ze, ezin ahaztu daiteke, euskaraz txotxoloa bazara, txotxolo bera izaten jarraitzen duzula bai ingelesez bai alemanez. Txotxolo poliglota bat.

**Azken urte hauetan itzultzailea zaitugu euskal argitaletxe ezberdinentzat; egia esan, ba al dute elkarren antzik jatorrizko olerki eta itzulitakoek?**

Olerkigintzan eta nobelagintzan, bietan nabil, eta bietan traidore fama dugu itzultzaileok, baina leiala naiz ni lanarekiko, lagunetik bezala. Hala behar du, ene ustez, hizkuntza bakoitzak berezkoak dituen ezaugarri guztiekin baliatuta, noski. Egiaz ona bazara, itzulitakoak ezertan ere

ez du aldatuko orijinalaren ederra. Dena hobetu daiteke, baina, ez beldurrik izan, inoiz baino finago ari dira euskal itzultzaileak lanean. Hala uste dut nik.

**Gizarteari buruz ezkor samar azaldu zara gehienetan, eta dirudienez, urteak pasa ahala ez duzu iritiz gehiegi aldatu, zein norabidean daramagula uste duzu?**

Eszeptikoa naiz. Gizarte faltsu eta alferrikako batean bizi garela kontentzitu nago. Nire esperantzaren kontra mundua zait ezkor eta absurdoa. Inkomunikazio dramatiko batean bizi garela iruditzen zait, eta hitzak, gizasemeen arteko zubi ordez, hesi bihurtu ditugu. Ideologiak momifikatu egin zaizkigu, ohartu gara erlijioak autoengainu bat direla guztiak. Gizakion norakoa krisian dagoela uste dut, inoiz baino hutsagoa ikusten dut, egunetik egunera gero eta itsuago eta babesgabe dagoen jendetzaren erdian paseatzen. Dena den, benetan asko animatu nauen epitafioa irakurri berri dut: *Dena kaka da, zu ezik.*

**Ba al duzu olerkiak idaztea gustuko dutenentzat aholkuren bat eskaintzeko?**

Bai: ginseng kaxa bat hartu dezatela negutik udaberrirako saltoan; gutxienez urtean behin “La polla records” taldearen *Salve* diskoa entzun dezatela; eta, azkenik, eta badaezpada, azpiko arropa garbiaz joan daitezela manifestazioetara.>

**Jon Castrillo**  
Argazkiak: **Concetta Probanza**





## Jose Vicente Katarain Vélez vicepresidente de la Euskal Etxea de Bogota de visita en Urretxu

El pasado 12 de abril Urretxu recibió la visita de José Vicente Katarain Vélez, vicepresidente de la Euskal Etxea de Bogotá. Además de explicar la labor que hacen desde la Euskal Etxea, habló de la necesidad de estrechar los lazos entre ambas tierras. Tras visitar el casco histórico, fue recibido en el ayuntamiento por las autoridades municipales. Observó con especial interés el cuadro de Jose Maria Iparragirre que está en el salón de plenos y demostró ser un gran conocedor de la vida de Iparragirre. No en vano la madre de Katarain es descendiente de Iparragirre. Acompañando en la visita estuvo también Josu Legarreta, director para la Diáspora del Gobierno Vasco.

## Urretxuko txistulari beterranoak berriz martxan

Urretxuko txistulari elkarteak laster 50 urte beteko ditu. Asko izan dira taldetik pasa direnak, gaztetxo hasi eta heldutasunera ere taldeko kide izanda iritsi direnak. Argazkian azaltzen direnak taldeko beterranoetako batzuk dira; txistuarekiko irrika oraindik barruan dutela eta, urte honen hasieran pentsatu zuten berriz igande goizeko kalejiretan parte hartzen hasia. Hilean behin ateratzen diren arren, ostegunero joaten dira, txintxo-txintxo, kultur etxera entsaiatzera Jostenkaren zuzendaritzapean. Guztira 15 bat lagun aritzen dira gogotsu, gure kaleak esnatzen eta aldi berean tradizioari eusten. Segi horrela!



## I lehiaketa deial diak

Dagoeneko kalean dira Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako Lehiaketen deialdiak.

- **PINTURA LEHIAKETA:**  
epea irailak 5
- **ARGAKI LEHIAKETA:**  
epea irailak 12
- **IPARRAGIRRE SARIA LITERATUR LEHIAKETA:**  
epea: irailak 26
- **KALE PINTURA LEHIAKETA:**  
urriak 5

Aurten Urretxun berritasun moduan oraindik orain udaletxean aurkeztu den lehiaketa dugu:

### "URRETXUKO IRUDI BERRIA SORTZEKO IDEIEN LEHIAKETA".

- **Helburua:** Urretxuko udaleko logotipoa aukeratzeko ahalik eta ideia gehien izatea. Erakunde hau ekimenaren sustatzaile gisa identifikatu behar den jarduera guztietan erabiliko da logotipoa, hala nola, publizitatean, komunikazioan....

- **Partaideak** edozein pertsona fisikok edo juridikok parte hartu ahal izango du. Gainera Urretxu eta Zumarragako eskolaumeak ere hartu ahal izango dute parte.

- **Lanak aurkezteko epea:** ekainaren 18an amaituko da.

- **Diseinu irabazleak sari bakarra izango du: 1500 €.** Era berean **Urretxu eta Zumarragako ikasleen diseinu onenei saria emango zaie, kategoria bakoitzeko bat:** Lehen hezkuntza (12 urte arte): sari bat; Derrigorrezko bigarren hezkuntza (16 urte arte): 150 € eta Batxilergoa /Lanbide Heziketa: 200 €

Sariak interesgarriak dira eta Urretxuko irudi berria aurkitzearen desafioa ere polita da. Animatu parte hartzera!



# Oleta borda berria inaguratuta

**m**aiatzaren 18an inauguratu zuten ofizialki auzolanean eraikitako Oletako borda berria

Hoha hemen eraikitze lanetan parte hartutako lagun batek helerazi dizkigun bertsoak:

## 2008ko urtarrila Oleta mendian borda berria eraikitzean

1  
Samiño mendian magalean  
aurkitzen da Oleta,  
ibilalditxo bat egiteko  
menditxo oso polita.  
Trinitate egunarekin  
erromeriaren zita,  
Agiñako gazteei eskerrak  
oraindidik mantenitzen da.

2  
Borda bat ere bazen han  
urte askotan eroria,  
berriro ere eraiki da ta  
hori guretzat pozgarria.  
Hala gertatu ezkerorain  
hemen dago aterpia,  
orain ondo zaintzen saia  
hori da gizalegia.

3  
Urte askotan iraun zutik  
hori da nahi duguna,  
errespetoz zaindu dezagun  
bere ingurumena;  
mendizale ta abeltzainak  
egin zuen ekarpena,  
gizaldietan izan dezala  
Oletak bere oihartzuna.



## nueva tarjeta sanitaria

La nueva tarjeta sanitaria electrónica multiusos ya ha iniciado su despliegue masivo por la red KZgunea. La tarjeta sanitaria electrónica de usos ciudadanos se solicita, tramita y entrega gratuitamente en el KZgune de Urretxu, en Barrenkale, s/n.

Para el próximo año está previsto que más de la mitad de la población de la Comunidad Autónoma Vasca disponga de esta tarjeta que integra todos los servicios telemáticos que ofrece cualquier Administración. En cinco años habrá sustituido a la actual Tarjeta Individual Sanitaria (TIS). La nueva tarjeta, llamada ONA (Osasun Nortasun Agiria), integra firma electrónica reconocida por la entidad Izenpe, juego de barcos, antena de proximidad, código de barras y banda magnética.

Esta tarjeta permite en un mismo documento de plástico el acceso a los servicios del Servicio vasco de Salud Osakidetza (reserva cita médica on line, solicitud de cambio de médico, etcétera), a posibles servicios por Internet de cada ayuntamiento. A realizar trámites con la Diputación foral (declaración de la renta) o a consultar los puntos del carné de conducir (Administración central). Incluso, a hacer trámites con terceros privados.

Con un lector de tarjetas en el ordenador (los de la red KZgunea disponen de ellos en los teclados) e introduciendo las claves de identificación, se pueden realizar los trámites telemáticos. La tarjeta ONA puede ser solicitada por todas las personas mayores de 16 años que posean la TIS.

## 1108

**i**108 zenbaki borobila bihurtu da "Iñaki Beitia" mendi martxako antolatzaileen-tzat.

263 mendizalek ibilbide luzea egin zuten eta 845ek motza. Horietatik guztietatik 796 gizonak ziren eta 312 emakumeak. Antolatzaileak pozik agertu dira eta zorionik eta eskerrik beroenak eman nahi dizkiete parte hartu duten guztiei eta lanetan laguntza eman duten guzti-guztiei. Denoi esker izan da posible 12. urtez mantentzea kirol ekintza herrikoia hau eta Iñakiren oroimena gure artean bizirik. Zorionak!

Con sólo presentarla junto al DNI en el KZgunea, se inician los trámites para la entrega de la nueva. Posteriormente la sociedad pública Izenpe, integrada por las tres Diputaciones forales y el Gobierno vasco, envía por correo postal al domicilio del solicitante una carta conteniendo un sobre con las claves de la tarjeta (códigos PIN y PUK). El titular de la tarjeta la debe recoger en el KZgunea donde realiza la solicitud presentando el DNI, así como la carta recibida de Izenpe.



## Alejandro Egeari agurra

**J**oan zen apirilaren 26an, 60ko hamarkadan ospe eta sona handia lortu zuten Urretxu eta Zumarragako 33 txirrindulari elkartu ziren bazkari batean elkarrekin bizi izandako esperientzi eta pasadizoak gogoratzeko. Giro jatorrean egon ziren, gazte garaiko lorpenak eta izerdiak gogora ekartzen. Bazkalondoan orogamitarako unea izan zen, eta bereziki omendu zuten Alejandro Egea, bere etxera lore sorta bat eramanez. Alejandrok jasoko zuen azkena, izan ere hurrengo egunean hil zen.

Alejandrok lan handia egin zuen herri honetako kirol munduan eta bereziki txirrindulari munduan. Askotan jaso zituen omenaldiak eta jendearen berotasuna, eta KAIXOk ere bere oroimena ekarri nahi izan du orri hauetara eta AGUR esan Alejandrori.



*Irene Calvillo*



# Aisialdirako begirale izateko ikastaroa

*Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko Udalek  
laugarren urtez antolatu dute aisialdiko  
begirale titulua lortzeko ikastaroa.*



**U**rtxintxa eskolako irakasleek ematen dituzte saioak, eta 2007-2008 ikasturte honetan 23 lagun ari dira parte hartzen: 22 neska eta mutil bakarra. Larunbatetan elkartzen dira Urretxuko kultur etxean.

Nerea Alustiza urretxuarra dabil ikastaroan koordinazio lanak egiten, eta berak azaldu digu xehetasun guztiekin ikastaroaren nondik norakoa.

## **EZAUGARRIAK**

Ikastaro hau, haur nahiz gazteen aisialdian hezitzaile gisa lan egiten duenari edo udalekuetan hartutako eskarmentuari osagarri gerta dakiokeen oinarritzko heziera bilatzen duenari zuzenduta dago.

### **Zertarako balio du ikastaro honek?**

Urtxintxak planteatzen dituen helburuak hauetxek dira:

1. Aisialdia baliabide hezigarri bezala deskubritzea.
2. Talde txiki batentzat egingo den aisialdirako jarduera bat planifikatzen, burutzen eta ebaluatzen ikastea.
3. Aisialdirako edozein proiektu hezigarri burutu ahal izateko talde lanak duen garrantziaz jabetzea.
4. Haur zein gazteen harremanak, psikologia... ezagutzea.
5. Euskal Herriko esparruan, pedagogia integral, aktibo, kritiko, askatzaile eta ez-zuzentzailearen kontzeptua eta praktika aurrera eramatea.
6. Aisialdirako animazio tekniken ezagutza bermatzea: talde dinamika, tailerrak, adierazpena, jolasak...

### **Orduan..., zeintzuk dira jorratzen diren gaiak?**

Sei arlo nagusitan biltzen dira begirale ikastaroan lantzen diren gaiak, hain zuzen ere honako hauek:

- Aisialdirako soziologia
- Aisialdiaren psikopedagogia
- Interbentzio hezigarriaren oinarriak
- Aisialdirako teknikak
- Esparru espezifikoak (udako egitasmoak, ludotekak)

- Jarraipena

### **Ikastaroaren iraupena**

Joan zen urrian eman zitzaion hasiera ikastaroari eta datorren maiatzean amaituko dute; larunbatean izaten dute hitzordua, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 15:30etik 19:30era.

Eta horrez gain, ikasturtean zehar lau asteburutan, larunbata eta igande osoa Pasaiako Arrokaundieta aterpean igarotzen dute.

### **Urtxintzak proposatzen duen formazioaren ezaugarriak**

Ikastaroan proposatzen dugun ikuspuntu metodologikoak, gure proiektu pedagogikoarekin eta planteatutako helburuekin harreman zuzena dauka.

- **Heziketa integral eta aktiboa:** inor ez da bere kabuz hezten, hezitzailearena eta ikaslearena elkar truka daitezkeen rola izanik. Formazioa ikasleen interesa eta nahiaren ondorioa izango da. Heziketa hau ikasleek jadanik dakitetik abiatzen da, bere esperientzia, ezagupena edo iritzietatik, elkarren artean ideia berriak bilatuz.

- **Heziketa kritikoa eta zientifikoa:** errealitatearen azterketa, plangintza eta ebaluaketa tresna gisa erabiliz, gure ekintza hezitzailea Euskal Herriko errealitateak dituen beharrei egokituz.

- **Heziketa askatzailea: ezagupenak** ez dira inposatuko ezta transmitituko ere, ideiak zabalduko dira hausnarke-ta sortzeko helburuarekin. Irakasleak heziketa prozesu honetan ikasleen inplikazio arduratsua bultzatuko du. Norberaren eta taldearen adimenaren eraikitze askea bilatzen dugu.

- **Heziketa pertsonalizatua eta talde-koa:** pertsona bakoitzaren beharrei egokituta eta era berean, taldeak dituen abantailetan oinarrituta: elkarriketarako jarrera, lankidetzeta, lantaldea, hizkera berriak...

### **Nola zehazten dira printzipio metodologiko horiek ikastaroan?**

Goian aipatutako ikuspuntu metodologikoak ikastaroaren bloke ezberdinetan txertatzen dira; hala nola:

- saioetan (irakasle adituek gidatutako saioak, kasu praktikoen azterketa, ...)
- esperientzietan (aisialdiko esperien-



tzia eta egitarauen aurkezpen saioak)

- praktikaldian (120 orduko saio praktikoak)
- hezkuntza pertsonalizatuan (animazioa eta dinamizazioa, komunikazioa, istiluak gainditzea, antolakuntza, ...)
- taldeko lanetan (esnatze jolasak, asteburu baten koordinazioa, ...)
- jarraipen zuzenean: koordinatzailea
- tutoretzatan

### **Ebaluaketa**

Eta amaitzeko, ikastaroaren ebaluazioari buruz hitz egitea geratzen zaigu.

Alde batetik, ikasleak bere burua, taldearen egoera eta jarrera, ikastaroaren antolakuntza, koordinatzailearen papera, ikastaroaren kalitatea, saioak, irakasleak eta abar ebaluatzen ditu.

Saioan zehar ebaluatu behar du ikasleak ematen ari den saioa. Taldearen jarrera, edukiak edota erabiltzen ari den metodologia hobetzeko proposamenak baleude, taldekideei eta irakasleari aipatzea komenigarria da.

Eta bestetik, Urtxintxa Eskolak ikastaroaren koordinatzaileen bidez, ikastaroaren faktore guztiak ebaluatzen ditu: antolakuntza, taldearen garapena, saioen kalitatea... ikastaroan sor daitezkeen arazoak konpontzeko, akatsak zuzentzeko, kalitatea hobetzeko helburuarekin beti.

Aipatutakoaz gain, Eskolak ikasle bakoitzaren ebaluazio jarrai bat burutzen du, ondoko hauek izanik kontuan hartzen diren irizpideak: asistentzia eta puntualitatea; partehartzea, interesa eta ahalegina; motivazioa; hezitzaile izateko gaitasuna eta ardura; talde lanerako gaitasuna eta elkarbizitzarako jarrera.>

**Jexus Mari Alberdi**

## **cursil Lo de monitores de tiempo libre**

Los ayuntamientos de Legazpi, Urretxu y Zumarraga han organizado por cuarto año consecutivo un cursillo para la obtención del título de monitor de tiempo libre.

Durante este curso 2007-2008 participan 23 jóvenes en la casa de cultura de Urretxu, bajo la dirección de la escuela Urtxintxa.

La urretxuarra Nerea Alustiza se

encarga del trabajo de coordinación del cursillo.

Este cursillo está dirigido principalmente a jóvenes que quieren formarse como educadores de tiempo libre, y en el mismo se trabajan temas como sociología o psicopedagogía del tiempo de ocio, técnicas educativas o aspectos específicos relacionados con este campo del ocio infantil y juvenil.



# Las fiestas republicanas (I)



**Los tres primeros años de la II República fueron una fiesta continua. Una especie de alegría e ingenuidad colectiva invadió a gente de todas las edades y a las propias instituciones, que pensaron que todo se podía cambiar a mejor. Es como si el estado de la adolescencia hubiera invadido todos los ámbitos. En especial, los músicos tuvieron un trabajo incansable. Todo era "amenizable": mítines, festejos, recibimientos, toros... Pero la adolescencia tiene un límite. Desde 1934 la República se quedó sin republicanos, y empezaron a aparecer los negros nubarrones que luego estallarían en la gran tormenta de 1936.**

**H**e rescatado viejos papeles correspondientes a las actas de las sesiones municipales y a la hemeroteca, en especial el diario republicano "La Voz de Guipúzcoa", para abarcar los episodios festivos de hace 76 años, de 1932, de cuando las ilusiones estaban casi intactas.

Lo primero que tocaba festejar en el calendario era el primer aniversario del advenimiento de la República. Ya en junio de 1931 el Ayuntamiento había pagado 73 pts por la compra de una bandera nacional y 10 m de percal tricolor. Además se pagaron 37,60 pts a Engracia Narbaiza por tela de color morado y por el arreglo

de las colgaduras. Todo da a entender que se trataba de una bandera monárquica arreglada con la banda morada republicana. Fue la Agrupación Republicana la que organizó los festejos del 14 de abril, juntamente para Zumárraga y Villarreal. El Ayuntamiento parece que colaboró escasamente, aunque no cobró el impuesto por la utilización del frontón

**“La Agrupación Republicana organizó los festejos del 14 de abril de 1932, juntamente para Zumárraga y Villarreal. Hubo una manifestación amenizada por la banda, juegos infantiles, partido de pelota y bailables.”**

para el partido de pelota. El acontecimiento más importante fue la presencia de la banda "El Romeral" de Eibar. Tras el pasacalles de la víspera, la diana se produjo a las 6 de la mañana (ciertamente, los horarios diurnos y nocturnos no eran comparables a los de ahora); luego a las 9 tuvo lugar el pasacalles. A las 10, y tras la enseña de la Agrupación tuvo lugar una manifestación amenizada con la banda tocando la Marsellesa, la Internacional y el Himno de Riego; delante de la estatua de Iparragirre la banda tocó el Gernikako Arbola, acompañada por las voces del pueblo. Más tarde, a las 11 hubo juegos infantiles en la plaza de



Iparagirre, y como colofón matutino el concierto en la Plaza de la República de Zumarraga. Por la tarde, partido de pelota en el Ederrena (Ulacia y Altuna, 22; Chapasta y Perú, 17), y a partir de las 18 horas baile en la plaza de Zumarraga hasta las 22 horas. Después los bailarines continuaron en el Ederrena hasta las 12 de la noche, pero con la banda local.

Ningún edil "hizo los honores de la casa" y en el cuartel de la Guardia Civil no ondeó la enseña tricolor: "un lunar" dirá el corresponsal de la Voz. Y es que la benemérita no debía tener bandera republicana, pues meses más tarde le fue comprada y costeada por los ayuntamientos de la circunscripción.

Los Sanjuanes de aquel año fueron muy brillantes. En junio de 1931 el Ayuntamiento había firmado un documento privado con Ambrosia Plazaola y su hijo Leoncio Sasieta, del caserío Mendizábal, por el que éstos cedieron 28 áreas de "terreno herbazal" al lado de Santa Bárbara a cambio de la traída de aguas desde el depósito de Agerre. Además, y por iniciativa del alcalde, en febrero de 1932 (y también en los años sucesivos) se instauró el "Día del árbol". Los niños (entre ellos mi padre) fueron

**“Los Sanjuanes del año 1932 fueron muy brillantes; el día de San Juan comenzó con la diana a las 7 de la mañana; la misa mayor fue a las 10, y hubo dos menús: uno de 8,50 ptas y otro de 10,50 ptas. Además se concedió un premio de 100 ptas al primer automóvil capaz de subir a la campa.”**

poblando de robles americanos la campa de Santa Bárbara, que desde entonces ha podido contar con su solar y su sombra. Pero vayamos con las fiestas. La víspera de San Juan hubo mercado extraordinario por la mañana, a las 11 el "chupín Perico" dio comienzo a las fiestas. Luego vino el pasacalles de los txistularis. Por la tarde, a las 20.30 se inauguraron los "evacuorios subterráneos" de la plaza Gernikako Arbola (contaban con ducha, a 25 cts por servicio), y después la banda se desplazó desde el Ayuntamiento para dar comienzo a los actos de la hoguera. Tras el fuego, los sempiternos bailables y correcalles con los músicos.

El día de San Juan comenzó con la diana a las 7, luego la subida a Santa Bárbara de las autoridades (estaban invitadas las corporaciones de Zumarraga y Legazpi) con la inefable banda y los dantzari-txikis. Misa mayor a las 10 y bailes de los dantzaris dirigidos por Josetxo Lizarralde a las

11.30. A las 12.30 banquete servido por el restaurante de Sotero Plazaola (nunca he oído que tuviera restaurante, quizás fuera el de la casa de su mujer: Iburreta), con dos menús: uno de 8,50 y otro de 10,50 pts. (en esta época los platos eran interminables; parece que la gente tomaba su pequeña venganza de la austeridad de diario). Apunto el menú más popular: entremeses variados; paella; pollo en menestra; solomillo con ensalada; postres: helado de crema y frutas variadas; bebidas: vino y sidra superior; café, cigarro y diversos licores. Los del caro, además, tenían merluza, jamón en dulce y gallina trufada, huevos hilados y clarete especial. Dietas equilibradas. A iniciativa del teniente de alcalde Pildain, también los pobres del Asilo de la Sagrada Familia y las monjas tuvieron una comida extraordinaria.

Tras los postres se lanzaron globos con propaganda del Estatuto, y luego la romería: acordeones, gaitas, txistus y banda. Tras la bajada, en el frontón y hasta las 24 horas, más bailables. Eran incansables. Un dato curioso y antagónico de nuestros días: se concedió un premio de 100 pts al primer automóvil capaz de subir a la campa.>

**Pedro Berriotxo Azkarate**

## jai errepublikarrak

II. Errepublikako lehenengo hiru urteak etengabeko festa izan ziren. Musikariek lan itzela izan zuten urte haietan, eta alaitasunak adin guztietako jendea harrapatu zuen. Baina 1934az geroztik Errepublika errepublikanorik gabe geratu zen eta hodeitzar beltzak agertzen hasi ziren; horien ondoren, 1936ko ekaitza etorri zen.

Elkarte Errepublikazaleak antolatatu zituen 1932ko apirilaren 14ko ospakizunak, Zumarraga eta Villarreal batera hartuta. Antza denez, Udalak ez zuen gehiegi lagundu, pilotalekua erabiltzeagatikozerga kobratu ez zuen arren. Egun hartako gertakizunik garrantzitsuena Eibarko "El Romeral" bandaren presentzia izan zen. Goizeko 10etan egin zen manifestazioan "Marsellesa", "Internazionala" eta "Himno de Riego" jo zituen, eta Iparragirerren estatuaren aurrean,

Gernikako Arbola ere bai, herriko ahotsek lagunduta.

1932ko San Juan jaiak ere ederrak izan ziren: goizeko 7etan goiz ereserkia izan zen, eta gero agintariek Santa Barbarara igo zuten, musika banda eta dantzari txikiak lagun zituztela. Zumarragako eta Legazpiko korporazioak ere gonbidatuta zeuden. Goizeko 10etan meza nagusia izan zen, eta ondoren dantzarien saioa, Josetxo Lizarralde zuzenduta. Gainera aipatzekoak dira San Juan eguneko bazkariak: bi aukera ziren, bata 8,50 pezetan, eta bestea, 10,50 pezetan. Bazkalondan Estatutuaren propaganda zeramaten globoak bota zituzten, eta gero, nola ez, erromeria: akordeoiak, gaitak, txistuak eta banda. Musikari nekaezinak ziren. Eta bukatzeko bitxikeria bat: 100 pezetako saria eman zitzaion Santa Barbarara igotzeko gai izan zen lehen autoari. Arraioa!





# UDal artxiboa

*Udal artxiboa zer den galdetu zaionean, Koldo Argandoña arduradunak ez du zalantzarik izan erantzuterakoan: "herriaren memoria da artxiboa". Herrien historia islatzen duten agiriak gordetzen dira bertan, modu ordenatuan.*

**A**rtxiboan gordetzen den dokumentazio guztiak funtsean izaera publikoa du; alde batetik herritarren eskubi-deak eta betebeharrak ontzat emateko balio du, eta bestetik, etorkizuneko udal jardueretan laguntzeko, batez ere hirigintz-izaerako jardueretan.

Informazio iturri garrantzitsua da herriaren historia eta bilakaera

berreraikitzeko, estatistikatik begiratuta bereziki.

## **Zer nolako zerbitzua eskaintzen die Urretxuko udal artxiboak herritarrei?**

① Herritarrek gerra zibilera arteko edozein agiri kontsulta dezakete, inolako arazorik gabe.

Berrogeiko hamarkadatik aurrera edozein kontsulta egin daiteke, beti ere gaiak kontsulta egiten duen herritarrarekin pertsonalki zerikusia baldin badauka.

② Artxibaria gidari izango dute nahi duten hura aurkitu ahal izateko, eta gainera, aholkua emango die informazio jakin bat aurkitzeko zein bide hartu behar duten azalduz, berak ezagutzen baitu inork baino hobeto artxiboandagoen guzti-guztia.

③ Kontsulta egiteko orduan kontuan izan behar da Datuak Babesteko Lege bat dagoela, eta horren



**KOKAPENA:**

Udaletxeko 4. solairua

**ARTXIBOAREN ARDURADUNA:**

Koldo Argandoña

**TELEFONOA:**

943 03 80 80

▲ Koldo Argandoña, Udal artxiboko arduraduna



arabera ezin da edo zein informazio edozeini eman.

- 4 Jende asko dago argazki bila datorrena, baina esan behar da ia ez dagoela 40-50-60 eta 70 hamarkadetako argazkirik; bakar-bakarrik jende partikularrak borondate hutsez utzi dituenak.

### Zein eratako kontsultak egiten dira?

Kontsulta ohikoenak historikoak izaten dira, eta gero, iragan hurbileko dokumentazioari buruzkoak eta administratiboak:

- hirigintzakoak
- Urretxun bizi izan diren pertsonak
- erroldako datuak
- auzoei buruzko kontsultak

Eta amaitzeko, zehaztasun bat: bete-betean informatika garaian bizi garen arren, oraindik ere artxiboan sartzen den informazio bolumena neurri handi batean behintzat paperean dago. Agian, hurrengo belaunaldiak ... Orduan ere, seguru, izango da artxibari bat argibideak emateko.>

**Irene Calvillo**

## arChivo municipal

Su responsable, Koldo Argandoña, no ha vacilado al responder a la pregunta de qué es el archivo municipal: "El archivo es la memoria del pueblo". En él se guardan de forma ordenada los documentos que, en definitiva, reflejan la historia de los pueblos.

Toda esa documentación que se guarda en el archivo es fundamentalmente de carácter público y sirve, por una lado, para validar derechos y deberes de los ciudadanos y, por otro, para ayudar a futuras actuaciones municipales, especialmente de carácter urbanístico.

Es una fuente de información muy importante para reconstruir la historia del pueblo y su evolución, sobre todo en términos estadísticos.

### ¿Qué servicio ofrece el archivo municipal de Urretxu a sus ciudadanos?

- 1 El ciudadano puede consultar cualquier documento hasta la guerra civil sin cortapisas. A partir de los años 40 hacia nuestros días se pueden hacer consultas siempre que el tema

tenga que ver personalmente con el ciudadano que consulta.

- 2 En la figura del archivero pueden encontrar un guía que les ayudará a encontrar aquello que buscan y les aconsejará qué vía seguir para llegar a una información determinada, ya que es la persona que conoce como nadie todo lo que hay en el archivo.
- 3 A la hora de realizar la consulta hay que tener en cuenta que existe una Ley de Protección de Datos que impide dar ciertas informaciones a cualquier interesado.
- 4 Hay muchas personas que se acercan buscando fotografías, pero hay que decir que apenas existen fotos de los años 40 - 50 - 60 y 70, sólo aquéllas que las personas particulares amablemente han cedido para hacer copias.

### ¿Cuál es la tipología de las consultas?

Las consultas más frecuentes son las históricas, seguidas de las de documentación del pasado reciente y las administrativas de tipo:

- urbanístico
- de personas que vivieron en Urretxu
- datos del padrón
- consultas sobre barrios

Y, para finalizar, un detalle: a pesar de vivir ya de lleno en la era de la informática, todavía el volumen de información que entra en el archivo esta en su gran mayoría en soporte papel. Quizá la a vuelta de unas generaciones.....Seguro que entonces también habrá un archivero para orientarnos.



# Tokiko gobernu batzararen erabakiak

Miren Castillo

## acuerdos adoptados

2008-01-14

### **Modificación PERI unidad edificatoria A.09 de la manzana A: Aprobación inicial**

Se acuerda aprobar inicialmente la "Modificación puntual Manzana A del Plan Especial de Rehabilitación Casco Histórico de Urretxu".

Este acuerdo se someterá a información pública, mediante la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en los diarios Berria y el Diario Vasco, durante el plazo de veinte días desde la última publicación.

El expediente se remitirá al Departamento de Cultura de Gobierno Vasco, al objeto de que emita el correspondiente informe y el acuerdo se notificará a todos los interesados.

### **KATEALEGAIA, S.L.L.: Licencia de apertura de taller de montaje en Polígono Mugitegi Vial C nº 20.**

Se acuerda, conceder a Katealegaia, S.L. licencia de apertura para taller de montaje en Polígono Mugitegi, Vial C nº 20, debiendo cumplir la siguiente condición: Mientras dure la actividad, en todo momento deberán mantenerse las medidas correctoras impuestas y las contenidas en la documentación presentada, siendo éllo responsabilidad del titular de la misma.

### **Propuestas de la Comisión de Deportes**

#### **Goierri, K.E.: Subvención.**

Por unanimidad se acuerda conceder a la S.D. Goierri subvención por importe de 300 €, para la celebración de partidos de pelota de Gabon Kopa

#### **Subida popular Año Nuevo Irimo: Subvención**

Se acuerda conceder a la S.D. Goierri subvención por importe de 600 €, para la celebración de la subida popular de Año Nuevo a Irimo.

#### **III Z-Z- Urolako trena bizikletaz: Subvención**

Se acuerda conceder a la S.D. Goierri subvención por importe de 143,28 €, para la celebración de la III edición Z-Z- Urolako trena bizikletaz.



### **Propuestas de la Comisión de Educación**

#### **Transporte Instituto J.M. Iparragirre: Subvención**

Se acuerda conceder al Instituto J.M: Iparragirre subvención por importe de 3.481,13 € en concepto de transporte para el curso 2007-2008.



### **Propuesta de la Comisión de Acción Social**

#### **Gazte Astea: Programa y presupuesto.**

Se acuerda aprobar el programa de actividades de la Gazte Astea organizada por la comisiones de Cultura y Acción social de Urretxu y Zumarraga así como aprobar el gasto correspondiente a Urretxu y que asciende a la cantidad de 5.006,14 €.

#### **Transporte a centros penitenciarios: Ayudas**

Se acuerda conceder ayudas económicas en concepto de transporte a centros penitenciarios a tres familias urretxuarras con las siguientes cantidades respectivamente (0,13/km):

- 2.568 €
- 2.726 €
- 1.535 €

#### **Días inhábiles**

Se acuerda declarar inhábiles los días, 24 de junio, 2 de julio, 13, 24 y 31 de diciembre, al solo efecto de trasladar al siguiente día hábil, el vencimiento en dichos días, de cualquier plazo, obligación o derecho relacionados con al Administración del Ayuntamiento de Urretxu.

### **Ratificación Resolución de alcaldía: Solicitud subvención obras adecuación colegio**

#### **Gainzuri**

Se da lectura a la Resolución de Alcaldía dictada con fecha 21 de diciembre pasado, al objeto de solicitar subvención a la consejería de Educación, Universidades e

Investigación para las obras de adecuación del colegio Público Gainzuri, resolución cuyo texto se transcribe a continuación

#### **RESUELVO:**

Primero.- Aprobar la Memoria técnica comprensiva de las obras a ejecutar en el Colegio Público Gainzuri con su presupuesto de ejecución

Segundo.- Solicitar a la Consejería de Educación, Universidades e Investigación subvención para las obras de adecuación del Colegio Público Gainzuri, consistentes en:

- el estudio y reparación de los muros de contención
  - la adecuación de la red de saneamiento del edificio y el saneo del semisótano
  - la reforma del cierre y la ejecución de acceso al patio lateral del colegio
  - la reforma del gimnasio y vestuarios del edificio viejo
  - la sustitución de canalones y la ventilación del local junto a la sala de máquinas
- Todo ello de acuerdo a la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación de 14 de noviembre de 2007

Tercero.- Dar cuenta de esta Resolución a la Junta de Gobierno Local para su ratificación en la primera sesión que esta celebre.

Seguidamente, se somete dicho acuerdo a votación siendo ratificado por unanimidad.

### **Calendarios laborales**



Se acuerda se aprueban los calendarios presentados por los trabajadores de los distintos departamentos de la Casa Consistorial, de acuerdo a los siguientes criterios:

- preservación de la atención al ciudadano, por lo que todos los puestos de atención directa al mismo serán de 8:00 a 15:00 horas de lunes a viernes.
- Servicio de atención al público los sábados de 10:00 a 13:00 horas, en principio cubierto con la policía municipal
- Los puentes sólo se ofrecerá el servicio de atención al ciudadano.
- El mes de agosto, además de una persona en atención al ciudadano, se cubrirán, la primera y la última semana del mes, todos los departamentos mediante un sistema de turnos.

**Distribución de gastos derivados de actividades conjuntas entre los Ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga**

Se acuerda fijar los porcentajes de distribución de gastos para las actividades conjuntas que se realicen entre los Ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga durante el año 2008 en función de la última cifra oficial publicada por el Instituto Nacional de Estadística, resultando los siguiente:

- Urretxu: 40,20 %
- Zumarraga: 59,80%

**Relación de facturas**

Se da cuenta de la relación de facturas nº 22 por importe de 37.778,54 €, que es aprobada por unanimidad.

**Control de ruidos en establecimientos de hostelería: adjudicación**

Se acuerda, adjudicar en la modalidad de contrato menor, a Laecor S.L la prestación del servicio de control de ruido en los establecimientos hosteleros, según oferta presentada, en las siguientes condiciones:

- precio : 1.080 € mensuales, IVA excluido
- periodo: seis meses.

2008-01-28

**Licencia de actividad y obras para bar en Kalerrota**

Se adopta el siguiente acuerdo: Conceder licencia de actividad y obras para bar en Kalerrota, debiendo cumplir las condiciones que marca la ley.

**Día jueves gordo**

Se acuerda, aprobar el programa de Jueves Gordo, reparto del tradicional bocadillo de chorizo y una naranja en los centros escolares con un gasto de 2.850 €.

**Padrón Impuesto Municipal de Vehículos de Tracción Mecánica**

Examinado el Padrón correspondiente al Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica del año 2008 en el que figuran la totalidad de los vehículos domiciliados en esta localidad, importando la totalidad de los recibos la cantidad de 413.301,20 €. Se acuerda aprobar el mismo y proceder a su exposición al público durante plazo de 15 días al objeto de

reclamaciones, mediante publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



**Propuestas realizadas por la Comisión de Cultura Programación teatral 2008**

**Urretxu-Zumarraga:**  
Por unanimidad se acuerda, aprobar la programación teatral del año 2008, así como aprobar el gasto correspondiente a Urretxu que asciende a la cantidad de 30.523,061 €.

**Carnaval: Programa y presupuesto Urretxu-Zumarraga:**

Se acuerda, aprobar el programa de carnaval y su presupuesto de gastos:  
- TRIKI TRUK ; Urretxu 634,19 €.

**Actividades carnaval en la biblioteca**

Se acuerda, aprobar el programa de actividades de carnaval a realizar en la biblioteca, así como su presupuesto que asciende a la cantidad de 1.219 €.

**Martxoan Bertsoa: Programa y presupuesto**

Se acuerda, aprobar el programa de actividades de "Martxoan Bertsoa" y presupuesto correspondiente a Urretxu y que asciende a la cantidad de 1.725 €

**Cine en euskera**

Se acuerda, aprobar el programa de DVD en euskera para niños y el presupuesto de gastos correspondiente a Urretxu y que asciende a 798 €.

**Propuesta de la Comisión de Deportes**

**Peña Musti: Subvención**  
Se acuerda conceder a la Peña Musti subvención por importe de 400 € para la organización de la charla " El Fútbol de ayer y hoy".

**Relación de facturas**

Se da cuenta de la relación de facturas nº 24 por importe de 16.673,23 € relación que se aprueba por unanimidad.

**Ratificación Resolución de alcaldía: Solicitud subvención Cartografía urbana digital**

Se resuelve:

Primero.- Solicitar a la Consejería de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio subvención para la realización de la cartografía urbana digital a escala 1/500, en suelo urbano residencial, suelo urbano de actividades económicas y en suelo de sistema general de equipamientos, de todo el municipio, cuyo coste asciende a 19.499,60 €, todo ello de acuerdo a la Orden de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de 14 de noviembre de 2007

Segundo.- Dotar la consignación económica suficiente en el Presupuesto Municipal para abordar la ejecución de las intervenciones presentadas en la Memoria que se presenta.

Tercero.- Dar cuenta de la presente Resolución a la Junta de Gobierno Local, para su ratificación, en la primera sesión que esta celebre.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad ratifica la Resolución transcrita anteriormente.

2008-02-11

**Colaboración y asistencia técnica para el desarrollo de las directrices de ordenación urbanística: Adjudicación contrato menor.**



Se acuerda, adjudicar, en la modalidad de contrato menor, a dos arquitectos para el desarrollo de las directrices de ordenación urbanística en las siguientes condiciones:

- 43,20 € hora arquitecto
  - 24,00 € hora delineante
- Y autorizar el gasto con cargo a la partida presupuestaria

correspondiente del Presupuesto General en vigor.

2008-02-25

**Propuestas de la Comisión de Euskera Plan de Promoción del Euskera: Liquidación de gastos 2007**

Se acuerda, aprobar la liquidación de gastos del referido plan del año 2007 y abonar a la asociación Zintzo-Mintzo a fin de liquidar los gastos ocasionados con el mencionado plan la cantidad de 631,72 €.

**Propuestas realizadas por la Comisión de Cultura**

**Actividades Semana de Pascua:**

Se acuerda, aprobar el programa de actividades de la Semana de Pascua y el presupuesto correspondiente a Urretxu y que asciende a la cantidad de 3.371,5 €.

**Programa musical y presupuesto 2008**

Se acuerda, aprobar el programa musical para el año 2008 y el presupuesto correspondiente a Urretxu y que asciende a la cantidad de 2.384 €.

**C.B.: Licencia apertura de pub en Gernikako Arbola 5 planta baja y semisótano.**

Se acuerda, conceder licencia de apertura para la actividad de pub en Gernikako Arbola 5 bajo y semisótano, debiendo cumplir las condiciones que marca la ley.

**Relación de facturas**

Se da cuenta de la relación de facturas nº 1 por importe de 20.536,85 €, que es aprobada por unanimidad




# KAIKO TXIKI!!

HEMEN DUGU UDABERRIA!!


## LABERINTOIA

Gure loretxo txikia galdu egin da, ea bere zelaitxoak aurkitzen laguntzen duzun!




## zazpi aldeak

Jonek bere baserriari bi argazki atera dizkio, ea bien arteko ezberdintasunak aurkitzen dituzun



## puntuak lotu...

Ea puntutxoak lotuz hain irribartxu agertzen den gure laguna zein den asmatzen duzun! Iorentxo deitzen da!





## olerkia...

Osatu olerkitxoa, falta diren hitzak ondoan dituzu!  
ZERUAN, BERRIA,  
POLITA, TXIRRINGA, DA,  
TXIKI

*Eguzkia hor dago,  
Indartsu .....,  
Nire begi dirdira  
Alaitzen hasi.....  
Badator, hor dago  
Bai, urtaro.....  
Jolas egin dezaket  
Hor daukat.....  
Zatoz nirekin,.....  
Hau amets .....!*

## kopiatu laukiz lauki...

Kopiatu ondoko koadroan bere ezkerrean agertzen den tximeleta poxpolina







**URRETXUKO  
IRUDI BERRIA  
SORTZEKO IDEIEN  
LEHIAKETA**



**CONCURSO DE  
IDEAS PARA LA  
NUEVA IMAGEN  
DE URRETXU**



Urretxuko Udala